# Eskubaloia Hiztegia



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

**Eskubaloia**

# HIZTEGIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa
Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

**http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka**

Argitaraldia: 1.a, 2012ko urria

Ale-kopurua: 1.500 ale

© argitaraldi honena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.euskara.euskadi.net/euskalterm

Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L.

ISBN: 978-84-457-3273-1

Lege gordailua: SS 1838-2012

## HITZAURREA

HIZKUNTZA EROSO eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, baliabide eta tresna egokiak beharrezkoak dira, eta eginkizun horretan leku garrantzitsua betetzen dute hiztegiek. Hizkuntzak etengabe aldatzen dira bizirik badaude, garai eta behar berrietara egokitzeko, eta, horrenbestez, hizkuntza baten modernizazioaren eta eguneratzearen prozesua ez da inoiz amaitzen. Horregatik, hizkuntzaren altxor lexikoa etengabe elikatu behar da, hizkuntza bera normalizatzeko batetik eta erabiltzaileen beharrei erantzuteko bestetik. Horregatik, helburu horri jarraituta argitaratzen dugu eskuartean duzun hiztegi hau, zalantzarik gabe, euskararen erabilera erraztuko duena.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak, corpus-plangintzari eta euskararen kalitateari dagokienez, Hiztegi Batua amaitu eta argitaratzea, eta datozen urteotarako terminologia-lanaren plangintza egitea agindu zuen (EBPN VI.3.3.a).

Hori horrela, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) EBPNk agindutakoa gauzatzeko, hainbat ekimen jarri zuen martxan: batetik, "EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoa" sortu zuen 2001ean; bestetik, Terminologia Batzordea eratu zuen Euskararen Aholku Batzordearen barruan.

EUSKALTERM erabilera publikoko bankua da, Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina. Banku hori metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, beti ere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planak jarraituz.

Beraz, EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPekin lankidetzan, euskal terminologiaren normalizazioari eta zabalkundeari ekin eta eusteko. Terminologia Batzordeari dagokio, bestalde, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egin, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea eta abar.

Lan horren guztiaren emaitza da eskuartean duzuen hiztegi hau. Hiztegia jorratzen duen eremuko erabiltzaileen premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, bai eta gure hizkuntzaren normalizazio eta eguneraketaren bidean urrats garrantzitsua izatea ere. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu guztiok, euskaldunok lexiko gero eta aberatsagoa izan dezagun gure eguneroko bizitzan ere.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 1a

Lourdes Auzmendi Ayerbe
*Hizkuntza Politikarako sailburuordea*

## HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa (www.euskara.euskadi.net/euskalterm) eguneratzeko eta elikatzeko entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuen barruan. Kontratuok HPSk eta IVAPek finantzatu dituzte, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenen bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehentasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa.

Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia Batzordeak[1] euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da.

Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia.**

---

1 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa

**Hiztegian erabilitako ponderazio-markak:**

*(4)* Termino normalizatua / gomendatua
*(3)* Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegian erabilitako laburtzapenak:

**eu** euskara
**es** español
**fr** français
**en** English

**Sin.** sinonimoa
**Ik.** ikus

# Normalizazioa

## Batzorde teknikoa

**Iñigo Aiestaran** (EITB)
**Mª Jose Intza** (SHEE-IVEF)
**Jabier Agirre** (UZEI)
Koordinatzailea: **Koro Urkizu** (HPS)

## Terminologia Batzordea

**Lourdes Auzmendi Ayerbe**, Hizkuntza Politikarako sailburuordea
**Mª Encarnacion Echazarra Huguet**, IVAPeko zuzendari nagusia
**Ivan Igartua Ugarte**, EABko idazkaria
**Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra**, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria
**Maite Imaz Leunda**, IVAPeko ordezkaria
**Andoni Sagarna Izagirre**, Euskaltzaindiaren ordezkaria
**Iker Etxebeste Zubizarreta**, Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxeko (UZEIko) ordezkaria
**Xabier Alberdi Larizgoitia**, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria
**Ibon Olaziregi Salaberria**, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria
**Mertxe Olaizola Maiz**, aditua
**Alberto Atxabal Rada**, aditua
**Joseba Erkizia Itoitz**, aditua
**Miel Loinaz Beristain**, aditua
**Asier Larrinaga Larrazabal**, aditua
**Alfontso Mujika Etxeberria**, aditua

## UZEIren LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK

**Martin Agirre.** Egin Irratia
**Iñigo Aiestaran.** ETB
**Pello Aiestaran.** Euskaldunon Egunkaria
**Jose Ignazio Altube**
**Alex Arrieta**
**Iñaki Elortza.** Euskadi Irratia
**Xabier Mikel Errekondo**
**Txemi Galarraga.** ETB
**Iñaki Friera.** SHEE/IVEF
**Cruz Ibero.** SHEE/IVEF
**Mari Jose Intza.** SHEE/IVEF

# EREMU - ZUHAITZA


1 **Instalazioak: jokalekua; materiala**

2 **Pertsonala: kirolariak; pertsonal ofiziala; pertsonal teknikoa eta laguntzailea**

3 **Ekipamendua**

4 **Partida: partidaren martxa; taktikak eta joko-ekintzak; arbitrajea**

5 **Organizazioa**

6 **Orokorra**

# AURKIBIDEA

**Bokabularioa sailka** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 11

1. Instalazioak: jokalekua; materiala. . . . . . . 12
2. Pertsonala: kirolariak; pertsonal ofiziala; pertsonal teknikoa eta laguntzailea . . . . . 16
3. Ekipamendua . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 22
4. Partida: partidaren martxa; taktikak eta joko-ekintzak; arbitrajea . . . . . . . . . . 24
5. Organizazioa . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 63
6. Orokorra . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 66

**Euskarazko aurkibidea** . . . . . . . . . . . . . . . . 67

**Gaztelaniazko aurkibidea** . . . . . . . . . . . . . . 77

**Frantsesezko aurkibidea** . . . . . . . . . . . . . . . 87

**Ingelesezko aurkibidea** . . . . . . . . . . . . . . . . 95

**Erreferentzia bibliografikoak**. . . . . . . . . . . . 103

# Bokabularioa sailka

# 1. INSTALAZIOAK: JOKALEKUA; MATERIALA

1

**4 m-ko marra** *(4)*

Atearen erdiko puntuaren parean eta ateko marratik 4 m-ra, lerro horrekiko paralelo, egiten den 15 cm luzeko marra, atezaina penalti bat botatzen zaionean noraino atera daitekeen markatzen duena.

**es** línea de 4 m; línea de limitación del portero
**fr** ligne de limitation pour le gardien de but; ligne de 4 m

**6 m-ko eremu**

Ik. ate-eremu

**6 m-ko marra**

Ik. ate-eremuko marra

**7 m-ko marra**

Ik. penalti-marra

**9 m-ko marra**

Ik. jaurtiketa libreko marra

2

**alboko marra** *(4)*

Jokalekua bi alboetatik mugatzen duten 40 m luzeko marra bietako bakoitza.

**es** línea de banda
**fr** ligne de touche
**en** sideline

3

**aldagela** *(4)*

Jokalariek eta arbitroek partidaren aurretik eta baita partidaren ondotik ere janzteko eta erazteko erabiltzen duten lekua, kirol-instalazioen barruan espresuki horretarako egokitua.

**es** vestuario
**fr** vestiaire
**en** dressing room

4

**aldaketak egiteko eremu** *(4)*

Sin. ordezpen-eremu *(3)*

4,5 m luze eta 5 cm zabaleko marra batekin markatutako eremua; jokalekuaren alboko marra baten ondoan egoten da, erdi-parean, eta talde bakoitzeko jokalarien aldaketak egiten dira bertan.

**es** zona de cambios
**fr** zone de remplacement
**en** area of substitution; place for substitutions

5

**angelu labur** *(4)*

Sin. hurbileko angelu *(3)*

Jokoaren une bakoitzean baloia duen jokalariarengandik hurbilen dauden ateko bi angeluetako bakoitza.

**es** ángulo corto
**fr** coin court; premier coin
**en** short corner

6

**angelu luze** *(4)*

Sin. urruneko angelu *(3)*

Jokoaren une bakoitzean baloia duen jokalariarengandik urrunen dauden ateko bi angeluetako bakoitza.

**es** ángulo largo
**fr** coin long; deuxième coin
**en** long corner

7

**ate** *(4)*

Alde bakoitzeko hondoko marraren erdian jartzen den 3 x 2 m-ko marko laukizuzena; bi zutoin, langa bat eta sarea izaten ditu, eta baloia leku horretan sartu behar izaten da gol egiteko.

**es** portería
**fr** but
**en** goal

8

**ate-eremu** *(4)*

Sin. atezain-eremu *(3)* ; 6 m-ko eremu *(3)*

Alde bakoitzeko atearen aurrean dagoen eta, printzipioz, atezainak bakarrik erabiltzeko izaten den eremua; sei metroko luzera izaten du, ateko marratik kontatuta.

**es** área de portería; área de 6 m
**fr** aire de but; surface de but
**en** goal area

9

**ate-eremuko marra** *(4)*

Sin. marra jarraitu *(3)* ; 6 m-ko marra *(3)*

Atezain-eremua ixten duen marra. 3 m luzeko marra zuzen bat izaten da, eta atetik 6 m-ra egiten da, ateko marrarekiko paralelo; marra hori, ertzetatik, zentroa atearen zutoinetan jarriz markatzen diren 6 m-ko erradioko bi zirkunferentzia-laurdenekin lotzen da hondoko marrarekin.

**es** línea de área de portería; línea continua
**fr** ligne de surface de but
**en** goal-area line

10

**ate-zutoin** *(4)*

Atearen markoaren bi pieza bertikalak, zurezkoak edo metalezkoak eta sekzio karratukoak; 8 cm-ko zabalera eta 2 m-ko altuera dute.

**es** poste de la portería
**fr** montant de but
**en** goalpost

11

**ateko marra** *(4)*

Sin. goleko marra *(4)*

Atearen zutoin batetik besteraino doan 3 m luze eta 8 cm zabaleko marra. Gola lortzeko, baloiak marra hori zeharkatu behar du.

**es** línea de gol
**fr** ligne de but
**en** goal line

12

**atez kanpoko marra** *(4)*

Atearen albo bakoitzean dagoen marra, atearen zutoinetik alboko marraraino doana.

**es** línea exterior de portería

**atezain-eremu**

Ik. ate-eremu

13

**aulki** *(4)*

Kronometratzeko mahaiaren bi aldeetan egoten diren eserlekuetako bakoitza. Bertan esertzen dira partidan jokatzen ari ez diren jokalariak, ordezkoak eta kanpora bidalitakoak, teknikariak eta laguntzaileak.

**es** banquillo; banco de reserva
**fr** banc; banquette
**en** bench

14

**baloi** *(4)*

Kolore bakarreko eta gainetik larruz jantzitako gorputz esferikoa, zirkunferentzia eta pisu ezberdinekoa: 58-60 cm eta 425-475 g ditu gizonezkoen kategorian, eta 54-56 cm eta 325-375 g emakumezkoenean.

**es** balón
**fr** balle; ballon
**en** ball

15

**erdiko marra** *(4)*
Jokalekua bi eremu berdinetan banatzen duen marra.
**es** línea central
**fr** ligne médiane
**en** centre line; halfway line

16

**eskuaira** *(4)*
**es** escuadra
**fr** lucarne
**en** top corner

**goleko marra**
Ik. ateko marra

17

**hondoko marra** *(4)*
Bi alboko marrak elkartuz, jokalekua alde laburretik mugatzen duten 20 metroko bi marretako bakoitza. Atez kanpoko bi marrek (eskuinekoak eta ezkerrekoak) eta ateko marrak osatzen dute hondoko marra.
**es** línea de fondo
**fr** ligne de fond
**en** end line

**hurbileko angelu**
Ik. angelu labur

**jaurtiketa libreko area**
Ik. jaurtiketa libreko eremu

18

**jaurtiketa libreko eremu** *(4)*
Sin. jaurtiketa libreko area *(3)*
Ate-eremuko marraren eta jaurtiketa libreko marraren artean dagoen eremua.
**es** área de golpe franco
**fr** zone de jet franc
**en** free-throw area

19

**jaurtiketa libreko marra** *(4)*
Sin. 9 m-ko marra *(3)*
3 m luzeko lerro etena; atetik 9 m-ra egiten da, lerro jarraituarekiko paralelo, eta bi ertzetatik 9 m-ko erradioko zirkunferentzia-laurden banarekin errematatzen da, zentroak alde bakoitzeko ate-zutoinaren barruko eta atzeko ertzean jarriz.
**es** línea de golpe franco; línea de falta; línea de 9 m; línea de puntos
**fr** ligne de jet franc; ligne discontinue
**en** free-throw line

20

**jokaleku** *(4)*
Joko-eremu laukizuzena, zementu, parket edo material sintetikozkoa, 40 x 20 m-koa.
**es** terreno de juego; pista de juego; campo de juego
**fr** terrain de jeu
**en** court of play; field of play

21

**kola** *(4)*
Gai erretxinaduna; jokalariek hatz-puntetan ematen dute baloiari hobeto heldu ahal izateko.
**es** pega
**fr** colle
**en** glue

**kontrol-mahai**
Ik. kronometratze-mahai

22

**kronometratze-mahai** *(4)*
Sin. kontrol-mahai *(3)*
Segurtasun-eremuan, erdiko marraren parean, jartzen den mahaia. Bertan esertzen dira kronometratzailea, idazkaria eta, batzuetan, beste hainbat ordezkari.

**es** mesa de cronometraje
**fr** table de chronométrage
**en** official's table

23
**kronometro** *(4)*
Denbora oso zehatz neurtzeko balio duen erlojua, kronometratzaileak partidaren iraupena neurtzeko erabiltzen duena.
**es** cronómetro
**fr** chronomètre
**en** stopwatch

24
**langa** *(4)*
Atearen bi zutoinak goialdetik elkartzen dituen zeharkako haga horizontala, 3 m-ko luzera duena.
**es** larguero; travesaño
**fr** barre transversale
**en** crossbar

**marra jarraitu**
Ik. ate-eremuko marra

25
**ordezko baloi** *(4)*
Partida bitartean kronometratze-mahaiak une oro eskura duen baloia, edozein unetan erabili ahal izateko prest edukitzen dena.
**es** balón reserva

**ordezpen-eremu**
Ik. aldaketak egiteko eremu

26
**penalti-marra** *(4)*
Sin. 7 m-ko marra *(3)*
Atearen erdiko puntuaren parean eta goleko marratik 7 m-ra, egiten den metro luzeko marra, lerro horrekiko paraleloa, penaltiak nondik bota behar diren markatzen duena.
**es** línea de penalti; línea de 7 m
**fr** ligne de 7 m
**en** penalty line

27
**sare** *(4)*
Zutoinen eta langaren arteko zuloa ixteko eta baloiak jasotzeko jartzen den nylonezko soka, mailak eratuz lotutakoa.
**es** red
**fr** filet
**en** net

28
**segurtasuneko tarte** *(4)*
Jokalekuaren inguru guztian libre uzten den tartea, jokalariek hesien eta itxituren kontra kolperik har ez dezaten baliatzen dena. Alboko marratik, 1 m-ko zabalera izaten du, eta, atetik, 2 m-koa.
**es** pasillo de seguridad; zona de seguridad
**fr** bande de sécurité; zone de sécurité; zone libre autour du terrain
**en** free area around the court; safe zone; security zone

29
**txartel berde** *(4)*
Time out bat eskatu nahi duen taldeko ordezkariak (ofizialak) mahaian, kronometratzailearen parean, kokatu behar duen kolore berdeko txartela.
**es** tarjeta verde
**fr** carton vert
**en** green card

30
**txilibitu** *(4)*
Arbitroek jokoan egiten diren faltak, jaurtiketak eta jokoaren hasiera eta bukaera adierazteko erabiltzen duten tresna soinu ozenduna.
**es** silbato
**fr** sifflet
**en** whistle

**urruneko angelu**
Ik. angelu luze

## 2. PERTSONALA: KIROLARIAK; PERTSONAL OFIZIALA; PERTSONAL TEKNIKOA ETA LAGUNTZAILEA

31
**alboko defendatzaile** *(4)*
6-0 defentsa-sisteman, kanpoko defendatzaileen eta erdiko defendatzaileen artean jartzen diren bi jokalarietako bakoitza; bata eskuineko aldean jartzen da, eta bestea ezkerrekoan.
**es** defensa lateral; segundo en defensa
**fr** défenseur numéro 2

32
**alboko erasotzaile** *(4)*
3-3 eraso-sisteman, erasoko lehenengo lerroko bi aldamenetan jartzen diren jokalarietako bakoitza; bata eskuinean jartzen da, eta bestea ezkerrean.
**es** lateral
**fr** arrière
**en** back

33
**arbitro** *(4)*
Sin. epaile *(3)*
Jokalarien portaera jokalekuan sartzen direnetik kanpora ateratzen diren arte epaitzen duen eta jokoaren arauak betearazten dituen pertsona. Eskubaloian, bi arbitro aritzen dira aldi berean lanean.
**es** árbitro
**fr** arbitre
**en** referee

34
**arbitro-talde** *(4)*
Partida batean parte hartzen duten bi arbitroek, idazkariak eta kronometratzaileak osatutako multzoa.
**es** equipo arbitral
**fr** équipe arbitrale
**en** refereeing corps

35
**ateko arbitro** *(4)*
Talde defendatzailearen hondoko marraren atzean, kanpoan eta atearen ondoan, jartzen den arbitroa. Erdiko arbitroarekin txandaka ibiltzen da lanean, orain ateko arbitro eta gero erdiko arbitro gisa arituz.
**es** árbitro de portería
**fr** arbitre de but
**en** goal referee

36
**atezain** *(4)*
Atea zaintzen egoten den jokalaria; besteek ez bezala, atezainak gorputzaren edozein atalekin uki dezake baloia, atearen eremuan baldin badago eta defendatzeko asmoa badu; bera da ate-eremuaren barruan egoteko baimena duen jokalari bakarra.
**es** portero
**fr** gardien de but
**en** goalkeeper

37
**aurkari** *(4)*
Jokalari batek edo talde batek bere kontra aritzeko aurrean izaten duen beste jokalaria edo taldea.
**es** adversario; contrario
**fr** adversaire
**en** opponent

**bigarren entrenatzaile**
Ik. entrenatzaile laguntzaile

38
**blokatzaile** *(4)*
Blokatzen duen jokalaria.
**es** blocador
**fr** bloqueur
**en** blocker

39
**blokeatzaile** *(4)*
Blokeatzen duen jokalaria.
**es** bloqueador
**fr** bloqueur
**en** blocker

40
**defendatzaile** *(4)*
Baloia ez duen taldeko jokalaria.
**es** defensor
**fr** défenseur
**en** defensive player

**defendatzaile aurreratu**
Ik. jokalari aurreratu

41
**entrenatzaile** *(4)*
Bai partidetan eta bai entrenamenduetan taldea zuzentzen duen kirol-teknikaria, taldearen zazpiko titularra eta ordezkoen zerrenda izendatzeko ardura izaten duena.
**es** entrenador
**fr** entraîneur
**en** coach

42
**entrenatzaile laguntzaile** *(4)*
Sin. bigarren entrenatzaile *(4)*
Entrenatzaileari partidetan eta, batez ere, entrenamenduetan, zuzendaritza-lanetan laguntzen dion teknikaria. Inoiz, haren ordez jarduteko ardura izaten du.
**es** ayudante de entrenador; segundo entrenador
**fr** entraîneur adjoint
**en** assistant coach

**epaile**
Ik. arbitro

43
**erasotzaile** *(4)*
Baloia bere eskuetan duen taldeko jokalaria.
**es** atacante
**fr** attaquant
**en** attacker

**erdiko**
Ik. erdiko jokalari

44
**erdiko arbitro** *(4)*
Partida hasterakoan, erdiko sakea egiten duen taldearen atzean jarri eta txilibituarekin partida noiz hasiko den markatzen duen arbitroa. Ateko arbitroarekin txandaka ibiltzen da lanean, orain erdiko arbitro eta gero ateko arbitro gisa arituz.
**es** árbitro central; árbitro de centro
**fr** arbitre de champ; arbitre central
**en** court referee

45
**erdiko defendatzaile** *(4)*
6-0 defentsa-sisteman, erdian geratzen diren bi defendatzaileetako bakoitza; penaltiko marraren inguruan eta alboetako defendatzaileen ondoan geratzen da.
**es** defensa central; tercero en defensa
**fr** arrière central; défenseur numéro 3
**en** centre back

46
**erdiko jokalari** *(4)*
Sin. erdiko *(4)*
3-3 eraso-sistema batean, lehenengo eraso-lerroaren erdian jartzen den jokalaria; normalean, bera izaten da joko-zuzendaria, eta jokoari erritmoa eta bizitasuna emanez joko guztia bideratzeko ardura izaten duena.
**es** central
**fr** demi-centre
**en** centre half

47
**erdiko jokalari aurreratu** *(4)*
3-2-1 defentsako sistema batean aurreratuen jartzen den defendatzailea; haren ezaugarri nagusia baloia kentzeko duen trebetasuna da.
**es** avanzado central
**fr** défenseur central avancé

**eskubaloi-jokalari**
Ik. eskubaloilari

48
**eskubaloilari** *(4)*
Sin. eskubaloi-jokalari *(4)*
Eskubaloiko kirolaria.
**es** balonmanista; jugador de balonmano
**fr** handballeur; joueur de handball
**en** handball player

49
**federazioaren ordezkari** *(4)*
Sin. ordezkari tekniko *(3)*
Federazioak jartzen duen ordezkaria; haren ardura da dokumentazio ofiziala jasotzea, instalazioak ikuskatzea, parte hartu behar duten jokalariei buruzko azken erabakia hartzea, partida ikustea, arazo teknikoak konpontzea, federazioari partidaren emaitza jakinaraztea eta idatzizko txosten bat egitea.
**es** delegado federativo; delegado técnico
**fr** délégué de la fédération; délégué technique
**en** technical delegate

50
**hartzaile** *(4)*
Taldekide batek emandako pasea hartzen duen jokalaria.
**es** receptor
**fr** receveur
**en** receiver

**hasierako zerrenda**
Ik. zazpiko titular

51
**hegaleko** *(iz.)* *(4)*
3-3 eraso-sisteman, erasoko bigarren lerroko bi alboetan jartzen diren jokalarietako bakoitza; bata eskuinean kokatzen da, eta bestea ezkerrean. Defendatzaileen artean hutsuneak sorraraztea, taktikako jokaldiak jaurtiketa batekin errematatzea eta, batzuetan, albokoen laguntzaile gisa jokatzea izaten da haren egitekoa.
**es** extremo
**fr** ailier
**en** winger

52
**idazkari** *(4)*
Sin. ohar-hartzaile *(3)*
Arbitroen laguntzailea; partidaren akta egiteaz, partidan parte hartuko duten jokalarien zerrenda egiaztatzeaz eta jokalariak jokalekuan nola sartzen diren kontrolatzeaz arduratzen da.
**es** anotador; secretario
**fr** secrétaire
**en** scorekeeper; scorer

53
**iskin-egile** *(4)*
Iskin bat egiten duen jokalaria.
**es** fintador
**fr** feinteur
**en** faker; feinter

54
**jaurtitzaile** *(4)*
Jaurtiketa egin duen jokalaria.
**es** lanzador; tirador
**fr** lanceur; tireur
**en** shooter; thrower

55
**jokalari aurreratu** *(4)*
Sin. defendatzaile aurreratu *(4)*
Lerro bat baino gehiagoz osatutako defentsa-sistema batean, bere atetik urrutien kokatua dagoen jokalarietako bakoitza.
**es** avanzado; jugador avanzado; jugador avanzado en defensa
**fr** défenseur avancé; joueur avancé; joueur avancé en défense
**en** front defender

56
**jokalekuko jokalari** *(4)*
Sin. kantxako jokalari *(4)*
Atezainak kenduta, partidako une jakin bakoitzean jokatzen ari diren, hau da, jokalekura aterata dauden jokalarietako bakoitza.
**es** jugador de campo; jugador de pista
**fr** joueur de champ
**en** court player; field player

57
**joko-antolatzaile** *(4)*
Sin. joko-zuzendari *(3)*
Erasoaldia antolatzeko ardura duen jokalaria.
**es** director de juego
**fr** constructeur de jeu
**en** playmaker

**joko-zuzendari**
Ik. joko-antolatzaile

58
**kanpoaldeko defendatzaile** *(4)*
6-0 defentsa-sisteman, kanpoen geratzen diren bi defendatzaileetako bakoitza, hau da, alboko marra eta hondoko marra elkartzen diren lekutik hurbilen geratzen direnetako bakoitza.
**es** defensa exterior; exterior; primero en defensa
**fr** défenseur numéro 1

**kantxako jokalari**
Ik. jokalekuko jokalari

59
**kantxako ordezkari** *(4)*
Sin. pistako ordezkari *(3)*
Eskubaloi-talde baten ordezkaria; partidan zehar gerta litezkeen gorabeheren erantzulea izaten da arbitroen aurrean.
**es** delegado de campo
**fr** délégué au terrain

60
**kapitain** *(4)*
Taldearen ordezkari-lanak egiten dituen jokalaria; berak du arbitroekin hitz egiteko ahalmena, eta partida hasi aurreko zozketan parte hartzeko ardura.
**es** capitán
**fr** capitaine
**en** captain

61
**kronometratzaile** *(4)*
Arbitroen laguntzaile bat; partidaren iraupena kontrolatzea izaten da haren ardura nagusia, eta, batzuetan, jokalariek kanpoan egon behar duten denbora eta aldaketak kontrolatzea, partidan parte hartzen duten jokalarien zerrenda kontuan hartzea, eta abar.
**es** cronometrador
**fr** chronométreur
**en** timekeeper

62
**markatzaile** *(4)*
Beste bat markatzen ari den jokalaria.
**es** marcador
**fr** marqueur

63
**masaje-emaile** *(4)*
Sin. masajista *(3)*
Jokalariei kolpeak sendatu edo muskuluak puntuan jartzen dien osasun-arloko profesionala.
**es** masajista
**fr** masseur
**en** masseur

**masajista**
Ik. masaje-emaile

64
**nazioarteko arbitro** *(4)*
Nazioarteko txapelketak epaitzeko, edota nazioarteko lehiaketetan jokatzen diren partidak arbitratzeko gaitasuna duen arbitroa.
**es** árbitro internacional
**fr** arbitre international
**en** international referee

65
**nazioarteko jokalari** (4)
**es** jugador internacional
**fr** joueur international
**en** international player

**ohar-hartzaile**
Ik. idazkari

**ordezkari tekniko**
Ik. federazioaren ordezkari

66
**ordezko jokalari** *(4)*
Kantxa ertzean kokatua dagoen ordezkoen aulkian beste jokalari baten ordez ateratzeko prest egoten den jokalaria.
**es** suplente; reserva
**fr** remplaçant
**en** reserve

**pasatzaile**
Ik. pase-egile

67
**pase-egile** *(4)*
Sin. pasatzaile *(4)*
Pase bat egiten duen jokalaria.
**es** pasador
**fr** passeur
**en** passer

68
**pibot** *(4)*
3-3 eraso-sisteman, erasoko bigarren lerroan atetik hurbilen jartzen den jokalaria; blokeoak eta lerradurak egiteaz arduratzen da.
**es** pivote
**fr** avant-centre; pivot
**en** centre forward; pivot

69
**pista-lehortzaile** *(4)*
Partidan zehar pista jokalarien izerdiz bustitzen denean hura lehortzeaz arduratzen den pertsona.
**es** asistente de pista
**fr** essuyeur
**en** floor wiperman

**pistako ordezkari**
Ik. kantxako ordezkari

70

**talde defendatzaile** *(4)*
Partidako une bakoitzean baloirik gabe dagoen taldea.
**es** equipo defensor
**fr** équipe défendante
**en** defending team

71

**talde erasotzaile** *(4)*
Partidako une bakoitzean baloia bere eskuetan duen taldea.
**es** equipo atacante
**fr** équipe attaquante
**en** attacking team

72

**taldearen ordezkari** *(4)*
Taldeak izendatzen duen jokalaria, taldea arbitroen aurrean ordezkatzeko eta, bide batez, taldearen eta lehiaketa-antolatzaileen arteko lotura egiteko hautatzen dena.
**es** delegado de equipo
**fr** chef de délegation

73

**taldekide** *(4)*
Jokalari batekin talde berean jokatzen duten beste lagun guztietako bakoitza.
**es** compañero de equipo
**fr** coéquipier
**en** teammate

74

**titular** *(4)*
Partida-hasierako jokalarien zerrendan sartzen den jokalaria.
**es** titular
**fr** titulaire
**en** first team player

75

**zazpiko titular** *(4)*
Sin. hasierako zerrenda *(3)*
Partida jokatzen hasten diren jokalarien multzoa.
**es** alineación inicial; siete titular
**fr** formation initiale
**en** seven

# 3. EKIPAMENDUA

**babes-maskor**
Ik. barrabil-babes

76
**barrabil-babes** *(4)*
Sin. babes-maskor *(3)*
Atezainak barrabilak babesteko erabiltzen duen jantzi-osagarri zurruna.
**es** coquilla
**fr** coquille
**en** cup protector

77
**belaun-babes** *(4)*
Sin. belauneko *(3)*
Jokalariek belaunak babesteko jartzen duten ehunezko pieza elastikoa.
**es** rodillera
**fr** genouillère
**en** knee-pad

**belauneko**
Ik. belaun-babes

78
**besoko** *(iz.) (4)*
Taldeko kapitainak besoan lotua izaten duen 4 cm zabaleko zerrenda oihalezkoa; kamisetarena ez den beste kolore batekoa izaten da, eta gainerako taldekideengandik bereizteko balio izaten du, kapitain-izaera adierazteko, hain zuzen ere.
**es** brazalete
**fr** brassard
**en** armband; armlet

**ekipamendu**
Ik. jantzi

79
**elastiko** *(4)*
Sin. kamiseta *(4)*
Jokalariek soinaren goiko aldean eramaten duten jantzia; kolorez eta ikurrez taldearen adierazgarria izaten da, eta jokalaria identifikatzeko balio duen zenbaki bat izaten du.
**es** camiseta
**fr** maillot
**en** shirt

80
**galtzamotzak** *(4)*
Sin. prakamotzak *(4)*
Belaunetik gora geratzen diren galtzak, elastikoarekin batera jokalarien joko-jantzia osatzen dutenak.
**es** pantalón corto
**fr** culotte; short
**en** shorts

81
**jantzi** *(4)*
Sin. ekipamendu *(3)*
Jokalariek daramaten uniformea, koloreen eta diseinuaren konbinazioa dela medio talde biak elkarrengandik ondo bereizi ahal izateko erabiltzen dutena. Atezainak talde bietako kantxako jokalariengandik eta kontrako taldeko atezainarengandik bereiziko duten koloreak eramaten ditu.
**es** equipación

**kamiseta**
Ik. elastiko

82
**kirol-oinetako** *(4)*
Eskubaloian jokatzeko janzten den eta gomazko zola duen oinetako arin eta takoirik gabea.

**es** zapatilla
**fr** chaussure
**en** shoe

83
**orkatila-babes** *(4)*
Sin. orkatilako *(3)*
Jokalariek orkatilak babesteko jartzen duten ehunezko pieza elastikoa.
**es** tobillera
**fr** protecteur de cheville; protège-cheville
**en** ankle support

**orkatilako**
Ik. orkatila-babes

**prakamotzak**
Ik. galtzamotzak

84
**txandal** *(4)*
Galtza, jaka edo elastiko zabal eta erosoz osatutako kiroletako arropa, kirolariek entrenamenduak eta berotze-ariketak egiteko janzten dutena.
**es** chándal
**fr** survêtement
**en** sweatsuit

85
**ukondo-babes** *(4)*
Sin. ukondoko *(3)*
Jokalariek ez urratzeko edo kolperik ez hartzeko ukondoan janzten duten babesgarria.
**es** codera
**fr** coudière; protège-coudes
**en** elbow guard; elbow pad

**ukondoko**
Ik. ukondo-babes

# 4. PARTIDA: PARTIDAREN MARTXA; TAKTIKAK ETA JOKO-EKINTZAK; ARBITRAJEA

**2-4 eraso**
Ik. 2-4 eraso-sistema

86
**2-4 eraso-sistema** *(4)*
Sin. 2-4 eraso *(4)*
Aurkariari eraso egiteko sistema bat, lehenengo lerroan bi jokalari eta bigarren lerroan lau jokalari jarriz (tartean bi pibot) osatzen dena.
**es** ataque 2-4; sistema ofensivo 2-4
**fr** système d'attaque 4-2

87
**3-2-1 defentsa-sistema** *(4)*
Sin. defentsa jugoslaviar *(3)*
Hiru lerroko defentsa-sistema, lehenengo defentsa-lerroan hiru jokalari, bigarrenean alboko bi defendatzaile eta hirugarrenean erdiko defendatzaile bat jarriz antolatzen dena.
**es** defensa yugoslava; defensa 3-2-1; sistema defensivo 3-2-1
**fr** défense yougoslave; défense 1-2-3; système défensif 1-2-3
**en** 3-2-1 defence

88
**3-3 defentsa-sistema** *(4)*
Defentsa bi lerrotan antolatu eta bakoitzean hiru defendatzaile jarriz osatzen den zonakako joko-sistema.
**es** defensa 3-3; sistema defensivo 3-3
**fr** défense 3-3; système défensif 3-3
**en** 3-3 defence

**3-3 eraso**
Ik. 3-3 eraso-sistema

89
**3-3 eraso-sistema** *(4)*
Sin. 3-3 eraso *(4)*
Aurkariari eraso egiteko sistema bat, lehenengo lerroan hiru jokalari eta bigarren lerroan beste hiru jarriz osatzen dena.
**es** ataque 3-3; sistema ofensivo 3-3
**fr** système d'attaque 3-3

90
**4-2 defentsa-sistema** *(4)*
Lehenengo lerroan lau defendatzaile eta bigarrenean bi jarriz osatzen den zonakako joko-sistema.
**es** defensa 4-2; sistema defensivo 4-2
**fr** défense 2-4; système défensif 2-4
**en** 4-2 defence

91
**4-2 defentsa-sistema misto** *(4)*
Lehenengo lerroan lau jokalari eta bigarrenean bi jarriz antolatzen den defentsako joko-sistema. Lehenengo lerroko jokalariek zonakako defentsa egiten dute eta bigarren lerrokoek, berriz, buruz burukoa.
**es** defensa 4-2 mixta; sistema defensivo 4-2 mixto
**fr** défense 2-4 mixte; système défensif mixte 2-4

92
**5-1 defentsa-sistema** *(4)*
Lehenengo lerroan bost jokalari eta bigarrenean bat jarriz antolatzen den zonakako joko-sistema.
**es** defensa 5-1; sistema defensivo 5-1
**fr** défense 1-5; système défensif 1-5
**en** 5-1 defence

93
**5-1 defentsa-sistema misto** *(4)*
Bigarren lerroan bakarrik jartzen den jokalaria buruz buru markatzeko erasotzaile bat izendatuz antolatzen den defentsako joko-sistema.
**es** defensa 5-1 mixta; sistema defensivo 5-1 mixto
**fr** défense 1-5 mixte; système défensif mixte 1-5

94
**6 m-ko marratik jaurtitze** *(4)*
**es** lanzamiento desde 6 metros

95
**6-0 defentsa-sistema** *(4)*
Sei jokalari defentsako lerro bakar batean jarriz antolatzen den zonakako joko-sistema.
**es** defensa 6-0; sistema defensivo 6-0
**fr** défense 0-6
**en** 6-0 defence

96
**9 m-ko marratik jaurtitze** *(4)*
**es** lanzamiento desde 9 metros

97
**abantaila-lege** *(4)*
Arbitroak, jokalari batek falta egin arren, jokoa ez eteteko erabiltzen duen arau bat. Erasoan dagoen jokalari bati falta egiten diotenean aplikatzen da, falta-jokalditik atera eta abantailazko egoeran aurkitzen denean, hau da, jokoa eteteak jokoa jarraitzeak baino kalte handiagoa egingo liokeela pentsatzen denean.
**es** ley de la ventaja
**fr** règle de l'avantage
**en** advantage rule

98
**abantaila-legea aplikatu** *(4)*
Arbitroak, aurretik faltaren bat gertatu dela konturatu arren, jokoari jarraitzen utzi, jokoa ez eteteak baloia duen taldearentzat abantaila dakarrela ikusten duelako.
**es** aplicar la ley de la ventaja
**fr** appliquer la règle de l'avantage
**en** apply the advantage rule

99
**adierazi** *(4)*
Arbitroak, txilibitu baten laguntzaz, faltak, jokoaren denbora-erdi bakoitzaren hasiera eta amaiera, eta partida bitartean gerta daitezkeen beste gorabehera guztiak seinalatu.
**es** señalar; pitar
**fr** siffler
**en** whistle

100
**agresio** *(4)*
Beste jokalari baten gorputzaren kontra egindako eraso bortitz edo larria, eta nahitakoa.
**es** agresión
**fr** agression

101
**alboko blokeo** *(4)*
Blokeatzaileak, bere eskuinetara nahiz ezkerretara kokatua dagoen jokalari blokeatuarekiko duen alboko egoera
**es** bloqueo lateral
**fr** blocage latéral
**en** side block

102
**alboko hartze** *(4)*
Hartze-mota bat; pasea, hartzaileak duen orientazioarekiko, albotik egiten da.
**es** recepción lateral
**fr** réception latérale
**en** side-ball catching

103
**alboko pase** *(4)*
Baloia duen jokalariak alboan duen taldekide bati egindako pasea.
**es** pase lateral
**fr** passe latéral
**en** cross pass

104
**alboko sake** *(4)*
Baloiak alboko marra erabat gainditu duenean gertatzen den egoera, edota kantxan defentsan ari den taldeko jokalari batek baloia ukitu eta baloiak atez kanpoko marra gurutzatzen duenean gertatzen dena.
**es** saque de banda
**fr** remise en jeu sur touche; rentrée de touche
**en** throw-in

105
**alboranzko lekualdatze** *(4)*
**es** desplazamiento lateral
**fr** déplacement latéral

106
**alboz kanpo** *(4)*
Baloia alboko marratik kanpora ateratzen denean sortzen den joko-egoera, edo defendatzaile batek ukitu ondoren baloia atez kanpoko marratik irteten denean sortzen dena.
**es** fuera de banda
**fr** touche; balle sortie en jeu
**en** out

107
**aldakako jaurtiketa** *(4)*
Aldakaren paretik egiten den jaurtiketa, aurkaria ustekabean harrapatzeko asmoz erabiltzen dena.
**es** lanzamiento de cadera; tiro de cadera
**fr** tir de la hanche; tir en pivotant
**en** hip throw

**aldakako pase**
Ik. aldakaren pareko pase

108
**aldakaren pareko pase** *(4)*
Sin. aldakako pase *(4)*
Baloia aldaka paretik botaz egiten den pasea.
**es** pase de cadera
**fr** passe de la hanche
**en** hip-high pass

109
**aldaketa** *(4)*
Sin. ordezte *(3)*
Partida bitartean jokalari bat kendu eta, haren ordez, beste bat ateratzea. Araudiaren arabera, ordezpen-eremuaren barruan egin behar dira aldaketak.
**es** cambio; sustitución
**fr** changement; remplacement
**en** substitution

**aldaratze**
Ik. urruntze

110
**alde ahul** *(4)*
Erasoko jokalari batek duen alderdirik ahulena; alegia, eskuinaldea ezkertiarentzat eta ezkerraldea, berriz, eskuinarentzat.
**es** punto débil
**fr** point faible

111
**alde indartsu** *(4)*
Erasoko jokalari batek duen alderdirik indartsuena; alegia, eskuinaldea eskuinarentzat eta ezkerraldea, berriz, ezkertiarentzat.
**es** punto fuerte
**fr** point fort

112
**aldibereko talka** *(4)*
Lekuz aldatzen ari diren bi jokalarik (erasotzailea bata eta defendatzailea bestea) bata bestearekin aldi berean talka egitea, hankak lurrean nahiz jauzian dituztela baina elkarri bultza egin gabe.
**es** choque simultáneo

113
**amaierako seinale automatiko** *(4)*
Partida amaitu dela adierazten duen seinalea, jendaurrean jarria dagoen kronometroak edota kronometratzaileak egiten duena. Seinale hori entzuten ez bada, arbitroak txistu-hots batez adierazten du joko-denbora bukatu dela.
**es** señal de final automática

114
**angelu laburrera jaurtitze** *(4)*
Sin. hurbileko angelura jaurtitze *(3)*
**es** lanzamiento al ángulo corto

115
**angelu luzera jaurtitze** *(4)*
Sin. urruneko angelura jaurtitze *(3)*
**es** lanzamiento al ángulo largo

116
**arau-hauste** *(4)*
Jokalari batek arautegian debekatua dagoen zerbait egitea.
**es** infracción
**fr** infraction
**en** infraction; infringement; overruling

**arauaren aurkako aldaketa**
Ik. arauz kontrako aldaketa

117
**arauz kontrako aldaketa** *(4)*
Sin. arauaren aurkako aldaketa *(4)*
Araudiaren kontra egiten den aldaketa; ordeztera ateratzen den jokalaria ordeztekoa jokalekutik atera baino lehen sartzen delako gertatzen da, edo aldaketa ez delako egiten horretarako dagoen eremuaren barruan.
**es** cambio antirreglamentario
**fr** changement irrégulier
**en** illegal substitution

**arauzko denbora**
Ik. joko-denbora

118
**arauzko distantzia** *(4)*
Jaurtiketa libreetan, defendatzaileek baloia dagoen lekuraino nahitaez utzi behar duten 3 m-ko tartea.
**es** distancia reglamentaria
**fr** distance réglementaire

119
**arbitraje** *(4)*
Arbitroak partida batean egiten duen lana.
**es** arbitraje
**fr** arbitrage
**en** refereeing

120
**arbitratu** *(4)*
Arbitro batek partida batean epaitze-lanak egin eta zuzendu, araudian ezarritakoa zuzen betetzen dela zainduz eta kontrolatuz.
**es** arbitrar
**fr** arbitrer
**en** referee

121
**arbitroaren sake** *(4)*
Arbitro batek jokoa eten ostean, erdiko arbitroak egin behar duen sakea, hau da, talde bakoitzeko jokalari bana jarri eta baloia gora botatzea, haien artean nork hartu lehia daitezen.
**es** saque de árbitro; saque neutral
**fr** jet d'arbitre
**en** referee's ball; referee's throw

122
arbitroen erabaki bateratu (4)
**es** decisión conjunta de los árbitros

123
**arbitroen seinale** *(4)*
Arbitroen hizkera edo adierazteko era, hau da, partidan faltak, joko-etenak, etab. adierazteko erabiltzen dituzten keinuetako bakoitza.
**es** señal de los árbitros
**fr** signal des arbitres
**en** referee's signal

124
**armatu** *(4)*
Besoa pase bat edo jaurtiketa bat egiteko prestatuta jarri.
**es** armar
**fr** armer
**en** wind up

125
**ate-eremua zanpatze** *(4)*
Sin. ate-eremuaren inbasio *(3)*
Jokalari batek ate-eremuaren lerro jarraitua zapaltzen duenean edo eremu horretan sartzen denean egiten duen falta.
**es** invasión del área de portería; violación del área
**fr** empiétement dans la surface de but; violation de surface
**en** landing in the goal-area

**ate-eremuaren inbasio**
Ik. ate-eremua zanpatze

126
**ate-eremutik irten** *(4)*
Atezainak ate-eremua utzi, edozein gorputz-atalez eremu horren marratik kanpoko lurra ukituta.
**es** abandonar el área de portería
**fr** sortir de la surface de but

127
**atea babestu** *(4)*
Sin. atea estali *(3)*
Aurkariak baloia atean sartzeko duen bidea ixten saiatu.
**es** proteger la portería; cubrir la portería
**fr** couvrir le but

**atea estali**
Ik. atea babestu

128
**ateko sake** *(4)*
Ate-eremutik bertatik atezainak egiten duen sakea; baloia atez kanpoko marratik kanpora irten denean egiten du, zehazki, baloia azkenekoz beste taldeko jokalari batek edo atezainak berak ukitu eta atez kanpoko marratik irten denean, edota jaurtiketa baten ostean atezainak baloia ate-eremuan kontrolatu duenean.
**es** saque de portería
**fr** renvoi de but
**en** goal throw; throw-out

**atera jaurtitze**
Ik. jaurtiketa

**atseden**
Ik. atsedenaldi

129
**atsedenaldi** *(4)*
Sin. atseden *(4)*
Lehenengo zatia bukatu eta bigarrena hasi aurretik izaten den hamar minutuko tartea, jokoa eten eta, bi taldeetako jokalariek atseden hartzen duten bitartean, entrenatzaileek aholkuak emateko erabiltzen dutena.
**es** descanso; media parte
**fr** mi-temps; pause
**en** half time; intermission; interval

130
**atzeko blokeo diagonal** *(4)*
Blokeatzaileak eskuinetara nahiz ezkerretara daukan jokalari blokeatuarekiko duen egoera: harekiko diagonalean dago, atzetik jarrita.
**es** bloqueo diagonal por detrás

131
**atzera-pase** *(4)*
Baloia duen jokalariak atzean duen taldekide bati egindako pasea.
**es** pase hacia atrás

132
**atzeranzko lekualdatze** *(4)*
**es** desplazamiento hacia atrás

133
**atzetik hartze** *(4)*
Hartze-mota bat; pasea, hartzaileak duen orientazioarekiko, atzetik egiten da
**es** recepción por detrás

**aurkakoa bultzatu**
Ik. aurkariari bultza egin

134
**aurkari-aldaketa** *(4)*
Lerro berean diharduten bi defendatzailek markatzen ari diren erasoko jokalariak trukatzea, elkarren artean hala adostu ondoren.
**es** cambio de oponente
**fr** changement d'adversaire
**en** switching

**aurkaria jo**
Ik. aurkariari kolpe eman

135
**aurkaria kontrolatze** *(4)*
Baloia duen erasotzailea gertutik markatzeko asmo tekniko-taktikoa, erasoan aurrera jarraitzen ez uzteko harekin kontaktua izatean datzana.
**es** control del oponente

136
**aurkariari bultza egin** *(4)*
Sin. aurkakoa bultzatu *(3)*
Aurkari bati eskuekin edo gorputzarekin presioa egin, lekuz mugiaraziz edo hari oreka galaraziz; arauaren kontrako jokaldia da, noski.
**es** empujar al adversario; empujar al contrario
**fr** pousser l'adversaire
**en** push the opponent

137
**aurkariari kolpe eman** *(4)*
Sin. aurkaria jo *(3)*
Aurkaria kolpekatu, hari oreka galarazteko eta baloia kentzeko asmoarekin; arauz kontrako jokaldia da.
**es** golpear al adversario
**fr** frapper l'adversaire
**en** hit the opponent

138
**aurreko blokeo diagonal** *(4)*
Blokeatzaileak eskuinetara nahiz ezkerretara daukan jokalari blokeatuarekiko duen egoera: harekiko diagonalean dago, aurretik jarrita.
**es** bloqueo diagonal por delante

139
**aurreko blokeo frontal** *(4)*
Blokeatzaileak aurrez aurre daukan jokalari blokeatuarekiko duen egoera.
**es** bloqueo frontal por delante

140
**aurrera-pase** *(4)*
Baloia duen jokalariak aurrean eta parean duen taldekide bati egindako pasea.
**es** pase frontal
**fr** passe à bras cassé
**en** overhand pass

141
**aurreranzko lekualdatze** *(4)*
**es** desplazamiento hacia delante

142
**aurreratze** *(4)*
Sin. progresio *(3)*
**es** progresión
**fr** progression

143
**aurrez aurreko lekualdatze-iskin** *(4)*
Lekualdatze-iskina, aurkaria aurrez aurre dela egiten dena.
**es** finta de desplazamiento de frente

144
**aurrez hartze** *(4)*
Hartze-mota bat; pasea, hartzaileak duen orientazioarekiko, aurretik egiten da.
**es** recepción frontal; recepción fundamental

145
**baliabide-jaurtiketak** *(4)*
Besoaren moldaera desberdinak baliatuz egiten diren jaurtiketak, batik bat atezaina gainditu edota ustekabean harrapatzeko asmoz eginak (esaterako, jaurtiketa loratuak edo baselinak, altuak nahiz baxuak, bizkar-jaurtiketak, efektudun jaurtiketak, etab.).
**es** lanzamientos de recurso

146
**baloi-zirkulazio** *(4)*
Baloiak eraso posizionalean ibiltzen duen nondik norakoa.
**es** circulación de balón
**fr** circulation de la balle
**en** ball movement

**baloia atera**
Ik. sakea egin

147
**baloia aukeratze** *(4)*
Partida lehenengo erasoa eginez hasteko aukera-eskubidea; kapitainen artean zozketa bidez erabakitzen da.
**es** elección de balón
**fr** choix de l'engagement
**en** choice of throw-on; option of throw-on

148
**baloia babestu** *(4)*
Aurkari bati baloia kentzen ez utzi, gorputz guztiarekin eta, batez ere, baloia ez daraman eskuarekin traba eginez.
**es** proteger el balón
**fr** protéger la balle
**en** protect the ball

149
**baloia eduki** *(4)*
Sin. baloiaren jabe izan *(3)*
Jokoan zehar, talde batek baloia bere eskuetan izan, eta, aurkariaren eskuetan erortzen utzi gabe, mugiarazi.
**es** estar en posesión del balón
**fr** être en possession du ballon
**en** be in possession of the ball

150
**baloia galdu** *(4)*
Jokalari bat edo talde bat baloirik gabe geratu.
**es** perder el balón
**fr** perdre le ballon
**en** lose the ball

**baloia harrotu**
Ik. baloia loratu

151
**baloia hartu** *(4)*
Baloia harrapatu, belaunetik gorako edozein gorputz-atalen laguntzaz baliatuz.
**es** coger el balón
**fr** atrapper le ballon; saisir le ballon
**en** catch the ball

152
**baloia jo** *(4)*
Jokalari batek belaunetik gorako edozein gorputz-atalekin baloiari kolpe bat eman.
**es** golpear el balón
**fr** frapper le ballon
**en** hit the ball; strike the ball

153
**baloia jokatu** *(4)*
Baloia jokoan mantendu, paseak, harrerak edo jaurtiketak eginez, boteak eginez, etab. batetik bestera ibiliz.
**es** jugar el balón
**fr** jouer le ballon
**en** play the ball

154
**baloia kendu** *(4)*
Jokalari bat baloiaren jabe egin, beste taldeko aurkari bati kendu diolako.
**es** quitar el balón; robar el balón; desposesión
**fr** arracher le ballon; enlever le ballon
**en** snatch the ball

155
**baloia kontrolatu** *(4)*
Baloiaren jabe den jokalariak baloia aurkarien eskuetan erortzen ez utzi, hura moldatuz edo hari bote eginaraziz.
**es** controlar el balón
**fr** contrôler la balle; contrôler le ballon
**en** control the ball

156
**baloia loratu** *(4)*
Sin. baloia harrotu *(3)*
Baloia gorantz bota, ibilbide paraboliko oso markatua eginaraziz.
**es** bombear el balón
**fr** lober la balle
**en** lob the ball

157
**baloia urrundu** *(4)*
Atezainak, erasoan aurkariek jaurtitako baloia atearen ingurutik aldendu, edozein gorputz-atalekin joz.
**es** despejar el balón
**fr** dégager la balle; renvoyer la balle
**en** clear the ball

**baloiaren jabe izan**
Ik. baloia eduki

158
**baloiaren kontrol** *(4)*
Jokalari bat baloiaren jabe izatea, baloia moldatuz edota hari bote eginaraziz eta aurkariaren eskuetan erortzen utzi gabe.

**es** control del balón
**fr** contrôle du ballon
**en** ball control

159
**baloiari bidea moztu** *(4)*
Defendatzaile batek, erasotzailea pasea ematen ari denean, hau da, baloia airean dagoenean, baloia desbideratu edo berreskuratu.
**es** cortar el balón; interceptar el balón
**fr** intercepter le ballon
**en** intercept the ball

160
**baloira moldatze** *(4)*
Eskuak baloira ongi egokitzea; horri esker lortzen du jokalariak baloia kontrolatzea, erabiltzea eta maneiatzea.
**es** adaptación al balón

161
**banakako defentsa-sistema** *(4)*
Sin. buruz buruko defentsa-sistema *(3)*
Zonakakoa ez den defentsa-sistema; defendatzaile bakoitza erasotzaile batez arduratzen da, eta ez, ordea, eremu edo zona jakin batez.
**es** defensa hombre a hombre; defensa individual; marcaje individual
**fr** défense homme à homme; défense individuelle; marquage individuel
**en** individual checking; man-to-man defence; man-to-man marking

162
**banakako kontraeraso** *(4)*
Jokalari bakar batek egiten duen kontraerasoa.
**es** contraataque individual
**fr** contre-attaque directe; contre-attaque individuelle
**en** individual fast break

163
**banakako taktika** *(4)*
Erasoan nahiz defentsan, une egokian behar bezalako abiadurarekin keinurik egokiena aukeratzea.
**es** táctica individual
**fr** tactique individuelle
**en** individual tactics

164
**barneratu** *(4)*
Sin. sartu *(4)*
Erasotzaileak defentsan bere aurkaria gainditu, defendatzailea atzean utziz.
**es** penetrar
**fr** pénétrer
**en** break; penetrate

165
**barneratze** *(4)*
Sin. sartze *(4)*
Erasotzaile bat, beste taldekoen defentsan zulo bat bilatu eta defendatzaileak atzean utziz, ate aldera joatea.
**es** penetración
**fr** pénétration
**en** break

166
**baselina** *(4)*
Sin. jaurtiketa loratu *(3)*
Baloia atezainaren gainetik pasatu nahirik egiten den jaurtiketa; baloiari ibilbide parabolikoa emanez egiten da, kontrako atezaina aurrera aterata dagoela ikusten denean.
**es** vaselina; lanzamiento parabólico
**fr** lancer lobé; tir en lob
**en** lob shot

167
**bat baten kontra** *(4)*
Sin. buruz buru *(3)*
Jokalari bat beste aurkari bakar baten kontra aritzea, joko-egoera batean.

**es** uno contra uno
**fr** un contre un
**en** one-on-one

168
**begiz markatze** *(4)*
Sin. urrutiko markaketa *(3)*
Defendatzaile batek aurkari bat urrunetik kontrolatzea, hark egingo duenari aldez aurretik antzeman eta horren araberako neurriak hartzeko.
**es** marcaje visual; marcaje a distancia
**fr** marquage visuel

169
**behetik hartze** *(4)*
Sin. bular azpitik hartze *(3)*
Baloia sabelaldearen eta oinaren tartean hartzea, esku-ahurrak baloiaren aldera eta bi erpuruak kanpoaldera zabalduz.
**es** recepción baja; recepción de pase bajo
**fr** réception de passe basse
**en** catching of a low pass

**behetik jaurtitze**
Ik. jaurtiketa baxu

170
**berdinketa** *(4)*
Bi taldeak gol-kopuruz berdin egotea.
**es** empate; igualada
**fr** égalité; match nul
**en** tie

171
**berdinketa hauste** *(4)*
Talde bat, gola sartu duelako, markagailuan bestearen aurretik jartzea.
**es** desempate
**fr** barrage

172
**berotze** *(4)*
Segidan egingo diren jarduerak burutzeko gorputza prest edukitzeko asmoz, partida hasi aurretik egiten den prestaketa-saio berezia, edo baita entrenamendu-saioaren hasierako zatia ere.
**es** calentamiento
**fr** échauffement
**en** warm-up

173
**beso jaurtitzaile** *(4)*
Jaurtitzeko edo pasatzeko erabiltzen den besoa.
**es** brazo ejecutor; brazo lanzador
**fr** bras lanceur
**en** throwing arm

174
**besoa armatze** *(4)*
Besoa jaurtiketa edo pase bat egiteko jarreran prest uztea.
**es** armado del brazo
**fr** armé du bras
**en** wind-up of the arm

**bi boteko falta**
Ik. bote bikoitz

175
**bi eskuko pase** *(4)*
Baloiari bi eskuekin helduz egiten den pasea.
**es** pase con dos manos
**fr** passe à deux mains
**en** two-hand pass

**bi jokalariko pantaila**
Ik. biko pantaila

**bi ukituko falta**
Ik. bikoitz

**bigarren denbora-erdi**
Ik. bigarren zati

176
**bigarren zati** *(4)*
Sin. bigarren denbora-erdi *(3)*
Atsedenaldia amaitzen denetik partida bukatu arte jokatzen den 30 minutuko tartea.
**es** segunda parte; segundo tiempo
**fr** deuxième mi-temps
**en** second half

177
**biko pantaila** *(4)*
Sin. bi jokalariko pantaila *(3)*
**es** pantalla de dos jugadores
**fr** double écran
**en** double screen

178
**bikoitz** *(4)*
Sin. bi ukituko falta *(3)*
Jaurtiketa libre batekin zigortzen den falta; jokalari batek, nahita, baloia bi aldiz jarraian ukitzen duelako ezartzen da, hau da, ukitu batetik bestera baloiak lurrik, aterik, beste jokalariren bat edo arbitroa jotzen ez duelako.
**es** dobles
**fr** double
**en** double

179
**bizkar-jaurtiketa** *(4)*
Besoa bizkar aldera eramanez eta ukondoaren supinazioarekin egiten den jaurtiketa. Besoak gerriaren atzetik, maila desberdinetan, mugimendua egin ondoren burutzen den jaurtiketa, erabiliena gerriaren parekoa izanik.
**es** lanzamiento por detrás

180
**bizkar-pase** *(4)*
Pase-egileak besoa bizkar aldera eramanez eta ukondoaren supinazioa eginez ematen duen pasea.
**es** pase bajo por detrás
**fr** passe dans le dos; passe derrière le dos; passe en arrière
**en** around-the-back pass; behind-the-back pass

181
**bizkarreko lekualdatze-iskin** *(4)*
Lekualdatze-iskina, aurkariari bizkarra emanda egiten dena.
**es** finta de desplazamiento de espalda

182
**blokatze** *(4)*
Baloiari bidea moztu edo bi eskuekin geratzea.
**es** blocaje
**fr** blocage
**en** block; save

183
**blokeatu** *(4)*
Jokalari batek aurkari bati oztopo egin eta jokatzen ez utzi, aurkari horrek markatu behar zuen jokalaria libre gera dadin, defendatzaileek markatu gabe.
**es** bloquear
**fr** bloquer
**en** block

**blokeatze**
Ik. blokeo

184
**blokeko geldiketa** *(4)*
Distantzia ertain eta urruneko jaurtiketetan, atezainak baloiari bidea mozten saiatzeko egiten duen esku-hartzea, haren bila joanez gauzatzen duena.
**es** parada de bloque

185
**blokeo** *(4)*
Sin. blokeatze *(4)*
Defentsako taktika, jokalari batek aurkari bati oztopo egin eta jokatzen ez uzteko erabiltzen dena. Ekintza horren ondorioz, aurkari horrek markatu behar zuen jokalaria libre geratzen da, inolako defendatzailek markatu gabe, alegia.
**es** bloqueo
**fr** blocage
**en** block

186
**blokeo dinamiko** *(4)*
Blokeatzaileak, blokeoa egin ostean, ekintzaren bat egitea.
**es** bloqueo dinámico

187
**blokeo estatiko** *(4)*
Blokeatzaileak, blokeoa egin ostean, beste ekintzarik ez egitea.
**es** bloqueo estático

**bota**
Ik. jaurti

188
**bote** *(4)*
Sin. punpa *(3)*
Bote egitea eta horren ondorioa, alegia baloia lurrerantz nahita botatzea, baloiaren kontrola galdu gabe.
**es** bote
**fr** rebond
**en** bounce

189
**bote bertikal** *(4)*
Baloiak, lurra ukitu ondoren, ibilbide bertikala hartuz egiten duen botea.
**es** bote vertical
**fr** rebond vertical
**en** vertical bounce

**bote bidezko jaurtiketa**
Ik. bote-jaurtiketa

**bote bidezko pase**
Ik. bote-pase

190
**bote bikoitz** *(4)*
Sin. bi boteko falta *(3)*
Jokalari batek baloia eskuekin kontrolatua eduki ostean, berriz ere bote bat ematen duenean egiten den falta.
**es** dobles de bote
**fr** double drible
**en** double dribble

191
**bote egin** *(4)*
Sin. punpatu *(3)*
Jokalariak baloia lurrerantz nahita bota, baloiaren kontrola galdu gabe.
**es** botar
**fr** faire rebondir
**en** bounce

192
**bote handi** *(4)*
Sin. eraso-bote *(3)*
Aldaka gainetik egiten den botea, kontrako aterantz ahalik eta azkarren joateko baliatzen dena.
**es** bote alto; bote ofensivo; dribling alto
**fr** drible de débordement; drible haut
**en** high dribble

193
**bote jarraitu** *(4)*
Bata bestearen atzetik egiten diren boteetako bakoitza.
**es** bote continuado
**fr** rebond continu

194
**bote txiki** *(4)*
Sin. defentsako bote *(3)*
Aldakaren paretik edo azpitik egiten den botea, baloia gorputzarekin babesteko eta defendatzaileari kentzen ez uzteko baliatzen dena.
**es** bote bajo; bote defensivo; dribling bajo
**fr** drible bas; drible d'attente
**en** low dribble

195
**bote unitario** (4)
**es** bote unitario

196
**bote zeihar** *(4)*
Baloiak, lurra ukitu ondoren, ibilbide zeiharra hartuz egiten duen botea.
**es** bote oblicuo
**fr** rebond oblique

197
**bote-jaurtiketa** *(4)*
Sin. bote bidezko jaurtiketa *(3)*
Baloia atera botatzeko modua: hara iritsi aurretik lurrean bote bat eginarazten zaio.
**es** lanzamiento picado; lanzamiento con bote
**fr** lancer à rebond
**en** bounce shot

198
**bote-pase** *(4)*
Sin. bote bidezko pase *(3)*
Hartzailearengana iritsi aurretik lurrean bote bat eginaraziz bidaltzen den pasea.
**es** pase con bote; pase picado
**fr** passe avec rebond; passe indirecte
**en** bounce pass; indirect pass

**bular azpitik hartze**
Ik. behetik hartze

199
**bularraren pareko hartze** *(4)*
Baloia buruaren eta bularraren arteko mailan hartzea, eskuak pixka bat tolestuz.
**es** recepción clásica; recepción de pecho; recepción intermedia
**fr** réception à hauteur de la poitrine
**en** catching at chest height

200
**bularreko pase** *(4)*
Baloia bi eskuekin eta bularraren paretik botaz egiten den pasea.
**es** pase de pecho
**fr** passe à hauteur de la poitrine
**en** two-hand chest pass

201
**bultzatuz egindako pase** *(4)*
Sin. bultzatuzko pase *(4)*
Pase lasterra, besoaren mugimendu labur batekin baloia eskuz aurrera bultzatuz egiten dena.
**es** pase de empujón; pase de impulsión
**fr** passe poussée

**bultzatuzko pase**
Ik. bultzatuz egindako pase

**buru gainetik jaurtitze**
Ik. jaurtiketa altu

**buruaren pareko hartze**
Ik. goitik hartze

**buruz buru**
Ik. bat baten kontra

**buruz buruko defentsa-sistema**
Ik. banakako defentsa-sistema

202
**defendatu** *(4)*
Talde batek bere atea kontrako taldearen erasotik babestu.

**es** defender
**fr** défendre
**en** defend

203
**defentsa** *(4)*
Baloirik ez duen taldeak edo jokalariak aurkakoei golik sartzen ez uzteko eta baloia berreskuratzeko egiten duen joko-sistema.
**es** defensa
**fr** défense
**en** defence

204
**defentsa inguratu** (4)
**es** rodear la defensa
**fr** contourner la défense

**defentsa jugoslaviar**
Ik. 3-2-1 defentsa-sistema

205
**defentsa misto** *(4)*
Bi defentsa-sistema elkarrekin konbinatuz antolatzen den joko-sistema, hau da, beste taldeko jokalaririk arriskutsuenei bana-banako defentsa eginez eta gainerakoekin zonakako defentsa eginez eratzen dena.
**es** defensa mixta; defensa combinada
**fr** défense mixte
**en** combined defence; mixed defence

**defentsa-balantze**
Ik. defentsara biltze

206
**defentsa-eraso trantsizio** *(4)*
Kontraerasoaren aldietako bat: baloiaren kontrola lortu ondoren, baloia beste taldearen area ingurura eta 7 m-ko marratik gertuen ahalik eta azkarren eramatea da fase honen helburua, eta hori sakontasun eta bertikaltasunik handienaz egitea.
**es** transición defensa-ataque
**fr** transition défense-attaque
**en** transition from defense to attack

207
**defentsa-joko** *(4)*
Defentsan ari den taldeak garatutako jokoa.
**es** juego defensivo
**fr** jeu défensif
**en** defensive play

208
**defentsa-lerro** *(4)*
Baloirik ez duen taldeko jokalariek, jokalekuaren eremu jakin batean aritzeko hartzen duten lerro formako antolamendua.
**es** línea defensiva
**fr** ligne de défense
**en** defence line

209
**defentsa-triangelu** *(4)*
Zonakako defentsa batean, baloia duen erasotzaileak, baloirik gabeko erasotzaileak eta azken horren defendatzaileak osatzen duten triangelua.
**es** triángulo defensivo
**fr** triangle défensif
**en** defensive triangle

210
**defentsako bigarren lerro** *(4)*
Bi lerroz osatutako defentsa-sisteman, defendatzen ari diren atetik urrutien jartzen den jokalarien lerroa.
**es** segunda línea defensiva
**fr** deuxième ligne de défense

**defentsako bote**
Ik. bote txiki

211
**defentsako hirugarren lerro** *(4)*
Hiru lerroz osatutako defentsa-sisteman, defendatzen ari diren atetik urrutien jartzen den lerroa.
**es** tercera línea de defensa
**fr** troisième ligne de défense

212
**defentsako lehen lerro** *(4)*
Defendatzen ari diren jokalarien atetik hurbilen jartzen den jokalarien lerroa.
**es** primera línea defensiva
**fr** première ligne de défense

213
**defentsara biltze** *(4)*
Sin. defentsa-balantze *(3)*
Baloia galdu ostean, baloia galdu duen taldea ahalik eta azkarren defentsako bere postu edo lekuetara itzultzea.
**es** balance defensivo; repliegue defensivo
**fr** repli défensif

214
**deialdi** (4)
**es** convocatoria
**fr** convocation
**en** appel

215
**dejada** *(4)*
Jokalariak bere atzetik datorren taldekideari eskua luzatu eta baloia erraz hartzeko moduan utziz egiten den pase-mota.
**es** dejada; pase de bandeja

216
**dejadako pase** *(4)*
Enborra beso jaurtitzailearen aldera zertxobait makurtuz eta bihurtuz egiten den pasea, beso jaurtitzailearen esku-ahurra gorantz orientatua dagoelarik egiten dena.
**es** pase de dejada

217
**denboraldi** *(4)*
Federazioek, taldeen artean partidak joka daitezen, ofizialki ezartzen duten urtaldia.
**es** temporada
**fr** saison
**en** season

218
**denboraldi-aurre** *(4)*
Denboraldi ofiziala hasi aurretik, taldeek entrenamendu-saioak egiteko hartzen duten denbora; jokalariak prestatzeko eta jokoaren alderdi taktikoak eta estrategikoak lantzeko, edo jokalarien arteko koordinazioa hobetzeko eta abar izaten da.
**es** pretemporada
**fr** avant-saison
**en** pre-season

219
**derbi** *(4)*
Hiri, eskualde edo nazio jakin bateko bi talde nagusik elkarren artean jokatzen duten partida.
**es** derby
**fr** derby
**en** derby

220
**deskalifikatu** *(4)*
Arbitroak jokalari bati edo aulkian eserita egoteko baimena duten ordezkoei eta teknikariei zigorra ezarri, arau-hauste larri bat egin dutelako edo kanpora hiru aldiz bidali dituztelako; zigorrak jokalekua edo aulkia uztera behartzen ditu geratzen den partida-denbora guztirako; zigortutako taldeak, ordea, bi minutu pasatu ondoren, berriz ere zigorra jaso aurretik zuen jokalari-kopuru berarekin jokatzeko ahalmena izaten du. Deskalifikatzeko, txartel gorria erakusten da.

**es** descalificar
**fr** disqualifier
**en** disqualify

221
**deskalifikazio** *(4)*
Arbitroak jokalari bati edo aulkian eserita egoteko baimena duten ordezkoei eta teknikariei ezartzen dien zigorra, arau-hauste larri bat egin dutelako edo kanpora hiru aldiz bidali dituztelako aplikatzen dena; zigorrak jokalekua edo aulkia uztera behartzen ditu geratzen den partida-denbora guztirako; zigortutako taldeak, ordea, bi minutu pasatu ondoren, berriz ere zigorra jaso aurretik zuen jokalari-kopuru berarekin jokatzeko ahalmena izaten du. Deskalifikazioa txartel gorriarekin adierazten da.
**es** descalificación
**fr** disqualification
**en** disqualification

222
**desmarkatu** *(4)*
Jokalari bat aurkariaren markaketatik libre geratu.
**es** desmarcarse
**fr** se démarquer
**en** free oneself

223
**desmarkatze-iskin** *(4)*
Defendatzaile baten markatzeari ihes egiteko egiten den iskina, hau da, alde batera joateko keinu egin eta beste aldera joatea.
**es** finta de desmarque
**fr** feinte de démarquage

224
**desorekatu** *(4)*
Aurkariari oreka galarazi.
**es** desequilibrar
**fr** déséquilibrer
**en** take off balance

225
**doblatze** *(4)*
Zuzenekoa ez den aurkari baten gainean egiten den defentsa-ekintza erabakigarria, taldekide batek egindako akatsa konpontzekoa.
**es** doblaje

226
**dopin** *(4)*
Jokalari batek probari ekin aurretik arauz kontrako estimulatzaileak erabiltzea, bere errendimendua hobetzeko.
**es** doping
**fr** dopage; doping
**en** doping

227
**driblatu** *(4)*
Jokalari batek, baloiari bote txikiak eginaraziz, aurkariak hari baloia kentzeko egiten dituen ahaleginak saihestu eta ihes egin.
**es** driblar
**fr** dribler
**en** dribble

228
**driblin** *(4)*
Jokalari batek, baloiari bote txikiak eginaraziz, aurkariak hari baloia kentzeko egiten dituen ahaleginak saihestu eta hura atzean utziz ihes egitea.
**es** dribling
**fr** drible
**en** dribble

229
**elkarrekiko erresistentzia** *(4)*
Hanka geldian dauden edota lekuz aldatzen ari diren bi jokalarik (erasotzailea bata eta defendatzailea bestea) elkar ukitzea, bata bestea bultzatuz baina arautegian ezarritako moduan, alegia, falta egin gabe.
**es** resistencia mutua

230
**emaitza** *(4)*
Partida batean, talde bakoitzak lortutako gol-kopurua.
**es** resultado
**fr** résultat
**en** result

231
**entrenamendu** *(4)*
Jokalariei saio batean eginarazten zaizkien joko, ariketa edota jarduera fisiko nahiz taktikoen multzoa, haien jokoa eta gaitasunak hobetzeko baliatzen dena.
**es** entrenamiento
**fr** entraînement
**en** coaching; training

232
**eraso** *(ad.) (4)*
Talde batek edota jokalari batek beste taldekoen atean baloia sartzen saiatzeko jokoa egin.
**es** atacar
**fr** attaquer
**en** attack

233
**eraso** *(iz.) (4)*
Sin. erasoaldi *(4)*
Baloiaren kontrola duen jokalariak edo taldeak baloia beste taldekoen atean sartzeko hasten duen ekintza.
**es** ataque
**fr** attaque
**en** attack

234
**eraso posizional** *(4)*
Jokalari bakoitzari bere lekuan tinko eutsiz antolatzen den eraso-sistema; bereziki erasoko leku jakinetan jokatzeko espezializatuta dauden jokalariak dituzten taldeek erabiltzen dute.
**es** ataque posicional
**fr** attaque de position; attaque placée

**eraso-bote**
Ik. bote handi

235
**eraso-defentsa aldaketak** *(4)*
Defentsako edo erasoko lanerako espezifikoak diren jokalariak beren postuak hartzeko jokalekura irteten diren joko-egoera.
**es** cambios ataque-defensa

236
**eraso-defentsa trantsizio** *(4)*
Defentsa ahalik eta azkarren antolatzea, jokalari bakoitza bere tokian jarriz eta, ahal izanez gero, aurkarien kontraerasoa saihestuz.
**es** transición ataque-defensa
**fr** transition attaque-défense
**en** transition from attack to defence

237
**eraso-joko** *(4)*
Erasoan ari den taldeak garatutako jokoa.
**es** juego ofensivo; juego de ataque
**fr** jeu offensif; jeu d'attaque
**en** attacking play

238
**eraso-lerro** *(4)*
Lerro-formako antolamendua, baloia duen taldeko jokalariek jokalekuaren eremu jakin batean aritzeko hartzen dutena.
**es** línea ofensiva
**fr** ligne d'attaque
**en** forward line

**erasoaldi**
Ik. eraso

239
**erasoko bigarren lerro** *(4)*
Erasoan ari diren jokalarien atetik urrutien jartzen den jokalarien lerroa.
**es** segunda línea ofensiva
**fr** seconde ligne d'attaque

240
**erasoko falta** *(4)*
Egoera honetan gertatzen den falta: erasoan ari den jokalaria defendatzailearen kontra oldartzen da, lasterketan edo jauzian, eta, lekua irabazteko borroka horretan, erasotzaileak, sartzeko ekintza batean normalean, tupust egiten du defentsan ari den aurkariarekin.
**es** falta de ataque
**fr** faute offensive
**en** offensive foul

241
**erasoko lehen lerro** *(4)*
Erasoan ari diren jokalarien atetik hurbilen jartzen den jokalarien lerroa.
**es** primera línea ofensiva
**fr** première ligne d'attaque

242
**erdiko sake** *(4)*
Partida bitartean, gol bat sartzen den bakoitzean egiten den sakea. Horretarako, baloiak jokalekuaren erdian egon behar du.
**es** saque de centro
**fr** engagement; coup d'envoi
**en** entry; throw-in

**erdiko sakea egin**
Ik. erditik atera

243
**erditik atera** *(4)*
Sin. erdiko sakea egin *(4)*
Partidako lehenengo denboraren edo bigarrenaren hasieran, edo gol bat sartzen den bakoitzean, baloia jokalekuaren erdian jarri eta jokoan hasi.
**es** sacar de centro
**fr** engager

244
**erorizko jaurtiketa** *(4)*
Baloia eskutik ateratzen den unea ahalik eta gehien atzeratuz gertatzen den jaurtiketa, aurkaria gertutik gainditzeko baliatzen dena.
**es** lanzamiento con caída

245
**errebes-pase** *(4)*
Sin. pronazio-pase *(3)*
Pase-mota bat; pasea egin behar duen besoaren aldeko hanka aurreratuz egiten da, eta pasea egin behar den alderantz besoa azkeneko unean luzatuz, ukondoaren pronazioaren bidez (alegia, besaurrea kanpotik barrura jiratuz).
**es** pase de pronación; pase de revés
**fr** passe de revers
**en** backhand pass; reverse pass; reversed wrist pass

246
**errebeskako jaurtiketa** *(4)*
Ateari bizkarra emanda egiten den jaurtiketa; atezaina ustekabean harrapatzeko asmoz botatzen da baloia, eta bereziki pibotak egiten duen jokaldia izaten da.
**es** lanzamiento de revés
**fr** lancer de revers; tir retourné

247
**errebote** *(4)*
Baloia atzera bueltan etortzea, zutoina edo langa jo ondoren nahiz jokalari bat edo atezaina jo ondoren.
**es** rebote
**fr** rebond
**en** rebound

248
**erreflexuzko geldiketa** *(4)*
Distantzia laburretik egindako jaurtiketetan, atea estaltzeko gorputz-azalera ahalik eta handiena eskainiz atezainak egiten duen esku-hartzea.
**es** parada de reflejos

249
**erritmo-aldaketak** *(4)*
Lekualdatzearen abiaduran egindako aldaketak.
**es** cambios de ritmo
**fr** changement de rythme
**en** change of pace

**esekidura**
Ik. jauzi-gailur

**esekidurazko jaurtiketa**
Ik. jauzi-gailurreko jaurtiketa

**esekidurazko pase**
Ik. jauzi-gailurreko pase

**esekita hartze**
Ik. jauzi-gailurrean hartze

250
**eskubaloi** *(4)*
Taldekako kirola, zazpina jokalariko bi talderen artean jokatzen dena: jokalariak, eskuez baliatuz, baloia bata bestearen atean sartzen saiatzen dira. Talde bakoitzak jokalari bat izendatzen du atezain.
**es** balonmano
**fr** handball
**en** handball; team handball

251
**eskumuturreko pase** *(4)*
Baloia eskumutur-mugimendu batekin eta besoa ia batere mugitu gabe botaz egindako pasea.
**es** pase de muñeca
**fr** passe du poignet
**en** wrist pass

252
**euskarri** *(4)*
Sin. laguntzaile *(3)*
1. (Defentsan). Defentsako akatsen bat gertatzen den kasuan modu erabakigarrian aritzeko moduan dagoen taldekide baten prebentziozko egoera. 2. (Erasoan). Baloia daraman jokalariaren aurretik nahiz atzetik, desmarkatua dagoen taldekide baten egoera, baloia hari pasatzeko modua eskaintzen duelarik.
**es** apoyo; cobertura; ayuda
**fr** appui; soutien

253
**falta** *(4)*
Arautegiko arau bat haustea.
**es** falta
**fr** faute
**en** foul

254
**finkarazte** *(4)*
Aurkariaren arreta erakartzea, geldi gera dadin.
**es** fijación
**fr** fixation
**en** fixation

255
**fly** *(4)*
Sin. hegaldi *(3)*
Baloiari parabola-ibilbidea eraginez ate aldera egiten den pasea. Pase honetan, jauzian dagoen taldekide batek baloia airean hartu, eta atera jaurtitzen du, oinak lurrean jarri aurretik; alegia, ate-eremuaren parean jauzi egin eta oraindik airean dela hartzen eta jaurtitzen du baloia jokalariak.
**es** fly
**fr** fly; jeu aérien
**en** fly

256

**gainditze** *(4)*
Kontrako ateranzko progresioan, erasotzaile batek bere aurkaria atzean uztea.
**es** desbordamiento
**fr** débordement
**en** cutting around

257

**galdu** *(4)*
Partida batean, talde batek besteak baino gol gutxiago sartu.
**es** perder
**fr** perdre
**en** lose

258

**galtze** *(iz.) (4)*
Sin. porrot *(3)*
Partida batean, talde batek besteak baino gol gutxiago sartzea.
**es** derrota
**fr** défaite
**en** defeat; loss

**garaipen**
Ik. irabazte

**garaitu**
Ik. irabazi

259

**geldiketa** *(4)*
Sin. gelditu *(4)*
Atezainak, gorputzeko edozein atalez baliatuz, baloia atean sartzen ez uztea.
**es** parada
**fr** arrêt
**en** save

260

**gelditu** *(4)*
Atezainak, gorputzeko edozein atalez baliatuz, baloia atean sartzen ez utzi.
**es** detener; parar
**fr** arrêter
**en** stop

**gelditu**
Ik. geldiketa

261

**goal-average** *(4)*
Txapelketan zehar talde batek sartu dituen golen eta berari sartu dizkiotenen arteko erlazioa; txapelketa-bukaeran, puntu-kopuru berdina lortu duten taldeen arteko berdintasuna hausteko balio izaten du.
**es** golaveraje
**fr** goal-average
**en** goal-average

262

**goitik hartze** *(4)*
Sin. buruaren pareko hartze *(4)*
Baloia buruaren parean edo burua baino gorago hartzea.
**es** recepción a la altura de la cabeza; recepción alta
**fr** réception à hauteur de la tête; réception haute
**en** catching at head height

263

**gol** *(4)*
Baloia atetik barrura sartzea, gol-lerroa erabat zeharkatuz eta aurretik inolako faltarik izan gabe.
**es** gol
**fr** but
**en** goal

264

**gol-aukera argi** *(4)*
Baloiaren kontrola duen jokalariaren egoera, baloiaren jabe delako sortzen dena; edota, baloia atera jaurtitzeko aukera ona duen jokalariaren egoera, oraindik baloirik hartu ez badu ere berehala hartzeko prest dagoelako, gorputza orekan daukalako eta aurkariek inolako trabarik egiten ez diotelako sortzen dena.
**es** clara ocasión de gol

265

**gola baliogabetu** *(4)*

Arbitroek gol bat txartzat eman, jaurtiketa egin aurretik edo bitartean, nahiz gola sartu aurretik, jaurtitzaileak edota horren taldekideek arauz kontrako zerbait egin dutela uste dutelako.

**es** anular un gol; invalidar un gol
**fr** refuser un but
**en** disallow a goal

**gola eman**

Ik. gola onartu

266

**gola hartu** *(4)*

Talde batek aurkariak sartutako gola nozitu.

**es** encajar un gol; recibir un gol
**fr** encaisser un but

267

**gola onartu** *(4)*

Sin. gola eman *(3)*

Arbitroak gol bat ontzat eman, balio duela adierazi.

**es** conceder el gol
**fr** accorder le but
**en** concede a goal

268

**gola sartu** *(4)*

Talde batek baloia beste taldearen atean sartzea lortu, hau da, ateko marra erabat zeharkatzea lortu.

**es** marcar gol
**fr** faire un but; marquer un but; scorer
**en** score

269

**gortina** *(4)*

Baloia duen edo baloia hartzen ari den taldekidearen aurretik baloirik gabeko jokalari batek egiten duen ibilbidea, defendatzaileen irteera edo ibilbidea eragoztea edo trabatzea helburu duena. Ekintza hori baliatuz, baloia duen jokalariak erasoko sarrera bat egiten du, une berean.

**es** cortina

270

**gurutzatze** *(4)*

Talde-prozedura taktikoa: jokalari baten aurkari zuzena jokalari horren taldekide batek berarekin eramanda sortzen duen espazioa betetzen du aurkari zuzenik gabe geratu den jokalariak, eta, hala, bi jokalariok kokalekuak aldatzen dituzte elkarren artean.

**es** cruce
**fr** croissement
**en** crossing

271

**hamabiko** *(4)*

Sin. jokalari-zerrenda *(3)*

Talde bakoitzak partida hasi baino lehenago azaltzen duen hamabi jokalariko zerrenda. Entrenatzaileak partida jokatzeko izendatzen du, eta partidaren aktan jasota geratzen da.

**es** alineación; composición del equipo
**fr** alignement; composition de l'équipe
**en** lineup

272

**hamaikako eskubaloi** *(4)*

Hamaika jokalariz osatutako bi talderen artean jokatzen den eskubaloi-mota.

**es** balonmano a once
**fr** handball à onze
**en** field-handball

273
**hartze** *(4)*
Baloia eskuratzea, taldekide batek pase bidez bidalita edo aurkari batek nahi gabe emanda.
**es** recepción
**fr** réception
**en** catching

274
**hartze diagonal** *(4)*
Hartze-mota bat: pasearen norabidea diagonala da, hartzaileak duen orientazioarekiko.
**es** recepción diagonal

275
**hartze dinamiko** *(4)*
Sin. mugituz hartze *(3)*
Jokalari batek lekuz aldatzen ari den bitartean baloia hartzea.
**es** recepción dinámica; recepción en movimiento
**fr** réception en mouvement

276
**hartze errodatu** *(4)*
Sin. piririka hartze *(3)*
Lurrarekin kontaktuan dagoen baloia hartzea, modu estatikoan nahiz dinamikoan.
**es** recepción rodada

277
**hartze estatiko** *(4)*
Jokalari batek lekuz aldatu gabe baloia hartzea.
**es** recepción estática
**fr** réception à l'arrêt

**hartze-asmoan atzera egite**
Ik. hartzeko asmoa kentze

278
**hartzeko asmoa kentze** *(4)*
Sin. hartze-asmoan atzera egite *(3)*
Baloirik gabeko jokalariari egin ohi zaion markaketa-mota, baloia duen jokalariak taldekidearen zuzeneko aurkariari pasea ematea saihestu, zaildu eta/edo atzeraraztean datzana.
**es** disuasión de la recepción

279
**hasierako sake** *(4)*
Partidaren hasieran, alegia, lehenengo denboraren eta bigarren denboraren hasieran egiten den sakea.
**es** saque inicial

**hegaldi**
Ik. fly

280
**hesi** *(4)*
Defentsa lerro-estua, jokalariek bata bestearen ondoan jarriz eta elkarren artean espazio librerik utzi gabe osatzen dutena, eta aurkari batek baloia jaurtitzen duenean pasatzen ez uzteko baliatzen dutena.
**es** barrera
**fr** mur
**en** wall

281
**hesiaren gainetik jaurti** (4)
**es** tirar por encima de la barrera
**fr** shooter au-dessus du mur

**hiru jokalariko pantaila**
Ik. hiruko pantaila

282
**hiru segundo** *(4)*
Falta-mota bat; jokalariak baloia 3 segundo baino gehiago edukitzeagatik ezartzen da, eta jaurtiketa libre batekin zigortzen da.
**es** tres segundos
**fr** trois secondes
**en** three seconds

283
**hiruko pantaila** *(4)*
Sin. hiru jokalariko pantaila *(3)*
**es** pantalla de tres jugadores
**fr** triple écran

**hurbileko angelura jaurtitze**
Ik. angelu laburrera jaurtitze

284
hurbileko jaurtiketa *(4)*
Atetik hurbil egonik, hau da, 6 metroko marratik gertu egiten den jaurtiketa.
**es** lanzamiento en proximidad

285
**hurbileko markaketa** *(4)*
Sin. hurbileko markatze *(4)*
Jokalari batek markatu behar duen aurkaria gertu-gertutik zaintzea.
**es** marcaje de proximidad; marcaje en proximidad
**fr** marquage serré
**en** tight checking; tight guarding

**hurbileko markatze**
Ik. hurbileko markaketa

286
**ibilbide** *(4)*
Jokalariak edo baloiak egiten duen nondik norakoa.
**es** trayectoria
**fr** trajectoire
**en** trajectory

287
**ibilbide lerromakurreko lekualdatze** (4)
**es** desplazamiento en trayectoria curvilínea

288
**ibilbide lerrozuzeneko lekualdatze** (4)
**es** desplazamiento en trayectoria rectilínea

289
**ibilbide mistoko lekualdatze** (4)
**es** desplazamiento en trayectoria mixta

290
**ikuseremu** *(4)*
Jokoaren edozein unetan, jokalariak burua mugitu gabe duen ikusmenaren hedadurak mugatutako espazioa.
**es** campo visual
**fr** champ visuel
**en** field of vision; visual field

291
**irabazi** *(4)*
Sin. garaitu *(4)*
Partida batean, talde batek besteak baino gol gehiago sartu. OHARRA: Zerbait irabazten da, eta norbait garaitzen.
**es** ganar
**fr** gagner
**en** win

292
**irabazte** *(4)*
Sin. garaipen *(4)*
Partida batean, talde batek besteak baino gol gehiago sartzea.
**es** victoria
**fr** victoire
**en** victory

293
**iskin** *(4)*
Sin. keinu *(4)*
Baloia duen erasoko jokalaria aurkaria gainditzen saiatzea, lehenik ziria sartu edo engainatzeko asmoarekin keinu bat eginez, eta, ondoren, ziria baliatzeko beste ekintza bat burutuz.
**es** finta; desmarque con balón
**fr** feinte
**en** fake; feint

294
**iskin egin** *(4)*
Sin. keinu egin *(4)*
Baloia duen erasoko jokalaria aurkaria gainditzen saiatu, lehenik ziria sartu edo engainatzeko asmoarekin keinu bat eginez, eta, ondoren, ziria baliatzeko beste ekintza bat burutuz.
**es** fintar
**fr** feinter
**en** feint

295
**jarraikako progresioak** *(4)*
Sin. ondoz ondoko sarrerak *(3)*
Erasoko talde-prozedura taktikoa: baloia duen erasoko jokalariak taldekide baten aurkaria berarekin eraman edo, behintzat, erakartzen duenean sortzen den espazioa beste taldekide batek balia dezake.
**es** penetraciones sucesivas; puntos de apoyo dinámico; progresiones sucesivas
**fr** attaque à l'interval successive

296
**jaurti** *(4)*
Sin. bota *(4)*
Jokalari batek baloia kontrako aterantz zuzen bidali, belaunetik gorako edozein gorputz-atalekin bultzatuz, indar handiarekin normalean.
**es** lanzar; tirar
**fr** lancer; tirer
**en** shoot; throw

297
**jaurtiketa** *(4)*
Sin. atera jaurtitze *(4)*
Jokalari batek baloia kontrako aterantz botatzea, baloia belaunetik gorako edozein gorputz-atalekin bultzatuz, gola lortzeko asmoarekin.
**es** lanzamiento a portería; lanzamiento; tiro
**fr** lancer; tir au but
**en** shot; throw

298
**jaurtiketa altu** *(4)*
Sin. buru gainetik jaurtitze *(3)*
Buruaren gainetik egiten den jaurtiketa.
**es** lanzamiento alto
**fr** lancer haut
**en** overhead shot

299
**jaurtiketa baxu** *(4)*
Sin. behetik jaurtitze *(3)*
Baloia duen jokalariak baloia gerria baino beheragotik botaz egiten duen jaurtiketa.
**es** lanzamiento bajo
**fr** lancer bas
**en** low shot

**jaurtiketa efektudun**
Ik. jaurtiketa gurpildun

300
**jaurtiketa gurpildun** *(4)*
Sin. jaurtiketa efektudun *(4)*
Baliabidezko jaurtiketa-mota bat; pronazio/supinazio mugimenduak, ukondoaren toleste/luzatzearekin konbinatuta, efektu berezia ematen dio baloiari jaurtitzerakoan. Eskumuturrak toleste/luzatzearen bidez laguntzen dio baloiaren mugimenduari.
**es** lanzamiento de rosca; lanzamiento en bote con efecto
**fr** lancer avec effet

301
**jaurtiketa klasiko** *(4)*
Jaurtiketa-mota bat; erreferentzia gisa pase klasikoa hartuz, atzeranzko proiekzio handiagoa egiten da besoa armatzerakoan (enborraren tentsio handiagoa), eta gorputz-enborraren distortsio handiagoa eta bat-batekoagoa jaurtiketa gauzatzeko unean (abiadura handiagoa lortuz).
**es** lanzamiento clásico; tiro clásico
**fr** lancer classique
**en** overhand shot

302
**jaurtiketa libre** *(4)*
Araua hautsi duen taldeari ezartzen zaion zigor teknikoa. Jaurtiketa librea arau-haustea gertatu den lekutik beretik gauzatu behar da, pase edo jaurtiketa baten bidez; baina arau-hauste hori atearen eta 9 m-ko marraren tartean egiten denean, berriz, leku horretatik gertuen geratzen den 9 m-ko lerroaren puntutik botako da falta.
**es** golpe franco
**fr** jet franc
**en** free throw

**jaurtiketa loratu**
Ik. baselina

303
**jaurtiketa zuzendu** *(iz.) (4)*
Jaurtiketa-mota bat; erreferentzia gisa pase zuzendua hartuz, jaurtiketa gauzatzeko unean enborraren flexio handiagoa egiten da beso jaurtitzailearen kontrako alderantz, besoak eta eskuak gorputz-enborraren mugimenduari jarraitzen dioten bitartean.
**es** lanzamiento rectificado; tiro rectificado
**fr** lancer désaxé; tir en désaxé
**en** fallaway shot; shot in bending sideways

**jaurtiketa-iskin**
Ik. jaurtitze-iskin

304
**jaurtiketa-korridore** *(4)*
Defendatzailearen inguruan, nola alboetan hala goialdean, sortzen diren hutsuneetako bakoitza, ateranzko jaurtiketa egiteko baliatzen dena.
**es** pasillo de tiro

305
**jaurtiketa-lerro** *(4)*
Irudizko lerro bat, jokalaria jaurtiketa bat egitera doanean hasi baloitik eta atezainak zaindu gabe utzi duen ate-eremuraino luzatzen dena.
**es** línea de tiro
**fr** trajectoire de tir
**en** throwing line

306
**jaurtiketaren norabide** *(4)*
Jaurtitakoan baloiak jarraitzen duen bidea.
**es** dirección del lanzamiento
**fr** direction du lancer
**en** direction of the throw

307
**jaurtitze-iskin** *(4)*
Sin. jaurtiketa-iskin *(4)*
Jokalari batek doi-doi baloia jaurtitzeko unean egiten duen iskin edo keinua. Iskin-mota honetan, iskin-egilea aurkaria engainatzen saiatzen da, jaurtiketa-keinu baten bidez, eta, jarraian, engainu hori aprobetxatzeko, pase bat, lekualdatze bat edo jaurtiketa bat egiten du.
**es** finta de lanzamiento
**fr** feinte de lancer
**en** fake throw; shooting fake; shooting feint

308
**jauzi** *(4)*
Jokalari batek bere burua airean gora, aurrera, atzera edo albo batera botatzea, baloia jaurti, pasatu edo hartzeko.
**es** salto
**fr** saut
**en** jump

309
**jauzi bidezko jaurtiketa** *(4)*
Baloia luze jauzi eginez jaurtitzea, hau da, jokalariak bere burua aurrerantz luzatuz eta ate aldera hurbilduz.
**es** lanzamiento con salto
**fr** tir avec élan
**en** jump-in shot

310
**jauzi egin** *(4)*
Sin. salto egin *(4)*
Jokalari batek hanka batekin nahiz birekin lurrean indarra hartuz bere burua gora, aurrera, atzera edo alde batera bota.
**es** saltar
**fr** sauter
**en** jump

311
**jauzi-erorizko jaurtiketa** *(4)*
**es** lanzamiento en salto con caída
**fr** tir en plongeant sur saut

312
**jauzi-gailur** *(4)*
Sin. esekidura *(4)*
Gorantz egindako jauzi baten goreneko gailur-unea, jokalariak baloia hartu, pasatu edo jaurtitzeko egokiena izaten dena.
**es** suspensión
**fr** suspension
**en** jump

313
**jauzi-gailurrean hartze** *(4)*
Sin. esekita hartze *(4)*
Jokalari batek gora jauzi egin eta, jauziaren gorenean dagoenean baloia hartzea.
**es** recepción en suspensión
**fr** réception en suspension
**en** catching in jumping

314
**jauzi-gailurreko jaurtiketa** *(4)*
Sin. esekidurazko jaurtiketa *(4)*
Jokalariak gora jauzi egin altuera bilatuz, eta, jauziaren gorenean dagoenean, baloia botatzea, defentsako jokalarien gainetik pasatzen saiatuz.
**es** lanzamiento en suspensión; tiro en suspensión
**fr** tir en suspension
**en** jump shot

315
**jauzi-gailurreko pase** *(4)*
Sin. esekidurazko pase *(4)*
Jokalari batek gora jauzi egin eta jauziaren gorenean dagoenean egindako pasea.
**es** pase en suspensión
**fr** passe en suspension
**en** jump pass

316
**jazarpen** *(4)*
Defentsako prozedura tekniko-taktikoa; erasotzailearen aurreranzko ibilbidea eragozteko, atzeratzeko edo zailtzeko egiten da, eta, hala, aurkaria zona ez hain arriskutsuetara bideratzeko.
**es** acoso

317
**jokalari-lerro** *(4)*
Sin. joko-lerro *(3)*
Talde bereko jokalarien multzoa, taktika gisa lerroan jarri eta jokalekuko eremu jakin batean jokatzeko prestatzen direnean osatzen dena.
**es** línea de jugadores; línea de juego
**fr** ligne de joueurs
**en** line

**jokalari-zerrenda**
Ik. hamabiko

318
**jokalari-zirkulazio** *(4)*
Jokalari batek bere kokagune espezifikoa aldi baterako uztea, beste postu bat betetzera joateko.
**es** circulación de jugador
**fr** circulation des joueurs

319
**jokaleku-aldaketa** *(4)*
Sin. jokalekuz aldatze *(4)*
Bigarren denbora-erdian, taldeak jokalekuaren alde batetik bestera pasatzea, hau da, lehen defendatu duten aldeari gero erasotzea.
**es** cambio de campo
**fr** changement de camp
**en** change of sides

320
**jokalekua aukeratze** *(4)*
Jokalekuaren bi aldeetako batean jokatzen hasteko aukera-eskubidea; kapitainen artean zozketa bidez erabakitzen da.
**es** elección de campo
**fr** choix du terrain
**en** choice of sides; option of sides

321
**jokalekua utzi** *(4)*
Sin. jokalekutik aldendu *(3)*
**es** abandonar el terreno de juego
**fr** quitter le terrain de jeu
**en** leave the field

**jokalekutik aldendu**
Ik. jokalekua utzi

**jokalekuz aldatze**
Ik. jokaleku-aldaketa

322
**joko geldo** *(4)*
Sin. joko pasibo *(3)*
Talde batek, denbora galtzeagatik, baloia jokatu gabe edota erasotzeko nahiz jaurtitzeko inolako asmo garbirik erakutsi gabe baloia bere eskuetan edukitzea.
**es** juego pasivo; pasivo
**fr** jeu passif
**en** passive play

**joko pasibo**
Ik. joko geldo

323
**joko-denbora** *(4)*
Sin. arauzko denbora *(4)*
Partida guztiek izan behar duten iraupen ofiziala; gazteen kategoriatik gorako mailetan, 30 minutuko bi zati eta 10 minutuko atsedenaldi bat izaten dira, eta 5na minutuko bi zati dituen luzapen bat edo bi, beharrezkoa denean.
**es** tiempo de juego; tiempo reglamentario
**fr** temps réglementaire
**en** full time

324
**joko-etenaldi** *(4)*
Sin. time out *(3)*
Arbitroaren agindUz jokoa geldituta egiten den denbora.
**es** interrupción del tiempo de juego
**fr** interruption du temps de jeu
**en** interruption of the playing time; time out

**joko-lerro**
Ik. jokalari-lerro

325
**joko-sistema** *(4)*
Erasoko nahiz defentsako helburuak lortzeko, talde batek, bere jokalariak gune edo postu espezifiko desberdinetan banatuz, jokalekuan hartzen duen egitura.
**es** sistema de juego
**fr** système de jeu
**en** playing system

326
**jokoa gelditu** *(4)*
Sin. time out adierazi *(3)*
Arbitroek jokoa eten eta gerarazi, arau bat urratu, lesio bat gertatu edo beste gorabeheraren bat izan delako.
**es** detener el juego; parar el juego
**fr** arrêter le jeu
**en** stop the game

327
**jokoari berriro ekite** *(4)*
Partida etenda egon ondoren berriro jokoan hastea.
**es** reanudación del juego
**fr** reprise du jeu
**en** restart of the game

328
**kanpoan uzte** *(4)*
Arbitroak jokalari bati jokalekutik kanpora gerarazteko ezartzen dion zigorra, araua behin eta berriz urratu duelako edo kirol-legearen kontra jokatu duelako aplikatzen dena. Bi minutu kanpoan gerarazteko zigorra izaten da, eta, denbora horretan, jokalari bat gutxiagorekin jokatu behar izaten du jokalari zigortuaren taldeak. Esku bat jaso eta bi hatz V moduan luzatuz adierazten du arbitroak kanpoan uztea.
**es** exclusión
**fr** exclusion
**en** suspension

329
**kanpoan uzteko denbora** *(4)*
Zigortutako jokalariak zigorra betetzen jokalekutik kanpora pasatu behar duen bi minutuko tartea.
**es** tiempo de exclusión
**fr** temps d'exclusion
**en** penalty time

330
**kanpora bidaltze** *(4)*
Arbitroak jokalari bati gogor jokatzeagatik ezartzen dion zigorra, partida bukatu arte jokalekua uztera behartzen duena. Zigorraren ondorioz, jokalari zigortuaren taldeak jokalari bat gutxiagorekin jokatu behar izaten du partida amaitu arte. Bi besaurreak gurutze moduan jasoz adierazten du arbitroak kanpora bidaltzea.
**es** expulsión
**fr** expulsion
**en** expulsion

331
**kargu-hartze** *(4)*
Arbitroak jokalari bati edo aulkian eserita egoteko baimena duen ordezko edo teknikariren bati arauz kontrako portaera edukitzeagatik ezartzen dion zigorra. Txartel horia erakutsiz adierazten da kargu-hartzea.
**es** amonestación
**fr** admonestation; avertissement
**en** warning

**keinu**
Ik. iskin

**keinu egin**
Ik. iskin egin

332
**kirol-lege** *(4)*
Sin. kiroltasun *(3)*
Kirolari baten prozedura zintzo, zuzen eta egokia.
**es** deportividad
**fr** sportivité
**en** fair play

333
**kirol-legearen kontrako portaera** (4)
**es** actitud antideportiva; conducta antideportiva; comportamiento antideportivo
**fr** conduite antisportive; comportement antisportif
**en** unsportsmanlike conduct

**kiroltasun**
Ik. kirol-lege

334
**kontrablokeo** *(4)*
Erasoan ari den taldeak burututako blokeoari aurre egiteko defentsako ekintza. Erasoan ari den taldeak burututako blokeoari aurre egiteko talde defendatzaileak erabilitako defentsako talde-prozedura taktikoa.
**es** contrabloqueo
**fr** contreblocage

335
**kontraeraso** *(ad.) (4)*
**es** contraatacar
**fr** contre-attaquer
**en** counterattack

336
**kontraeraso** *(iz.) (4)*
Defendatzetik erasotzera ahalik eta azkarren pasatzeko ekintza, aurkariek defentsa antolatu baino lehen jaurtiketarako espazio libreak bilatzeko egiten dena.
**es** contraataque
**fr** contre-attaque
**en** counterattack; fast break

337
**kontraerasoko pase** *(4)*
Pase lasterra eta normalean luzea, kontraeraso bati ekiteko erabiltzen dena.
**es** pase de contraataque
**fr** passe de contre-attaque
**en** fast break pass

338
**kopuruz gehiago izan** *(4)*
Jokalari-talde batek besteak baino jokalari gehiagorekin jokatu, beste talde horretako jokalariren bat kanpora bidali edo kanpoan utzi dutelako.
**es** estar en superioridad numérica; ventaja numérica
**fr** avantage numérique; surnombre
**en** man advantage; outnumbering

339
**kopuruz gutxiago izan** *(4)*
Jokalari-talde batek besteak baino jokalari gutxiagorekin jokatu, gehienetan jokalariren bat kanpora bidali edo kanpoan utzi dutelako.
**es** estar en inferioridad numérica
**fr** être en infériorité numérique

340
**korner** *(4)*
Erasoan dabilen taldeak atera beharreko sakea; alboko marra eta hondoko marra elkartzen diren puntutik ateratzen da, zehazki, baloia, defendatzaile batek ukitu ostean, jokalekutik hondoko marra zeharkatuz irten den aldetik.
**es** corner; saque de esquina
**fr** jet de coin
**en** corner-throw

341
**kronometraje** *(4)*
Kronometroaren bidez, joko-denboraldien eta horien arteko etenaldien iraupena neurtu eta kontrolatzea
**es** cronometraje
**fr** chronométrage
**en** timekeeping

342
**kronometratu** *(ad.) (4)*
Jokoaren iraupena zehatz neurtu, partidan zehar egin diren joko-etenen edo denbora-galtzeen araberako doitzeak egitea kontuan hartuz.
**es** cronometrar
**fr** chronométrer
**en** time

343
**kulunkatze** *(4)*
Zonakako defentsa antolatuta dagoenean, defendatzaileak baloia dagoen aldera joatea, defentsako triangelua eratuz.
**es** basculación
**fr** flottement
**en** floating; swaying

**laguntzaile**
Ik. euskarri

**lehen denbora-erdi**
Ik. lehen zati

344
**lehen zati** *(4)*
Sin. lehen denbora-erdi *(3)*
Partida hasi eta atsedenaldira arte jokatzen den 30 minutuko tartea.
**es** primer tiempo; primera parte
**fr** première mi-temps
**en** first half

345
**lekualdatze** *(4)*
Jokalari bat beste leku batera joatea, erritmo-aldaketak eta norabide-aldaketak konbinatuz eta geraldiak eginez edo egin gabe, jokoak agintzen duenaren arabera.
**es** desplazamiento
**fr** déplacement
**en** cutting

346
**lekualdatze-iskin** *(4)*
Aurkaria ibilbide batekin engainatuz hasten den iskina, eta, ondoren, ziria aprobetxatzeko, ibilbidea beste alde batetik jarraituz egiten dena.
**es** finta de desplazamiento

347
**lekualdatze-iskin botedun** *(4)*
Lekualdatze-iskina, iskin-egileak, arauzko hiru urratsak agortuta, aurkaria gainditzeko egiten duena.
**es** finta de desplazamiento con bote

348
**lekualdatze-iskin konbinatu** *(4)*
Sin. lekualdatze-iskin misto *(3)*
Lekualdatze-iskina; iskin-egilea aurkariari begira, haren aurrez aurre egoten da iskin egin aurretik, baina, iskin egitean, bizkarra ematen dio, ondoren ateari begira geratu eta jaurtiketa egokia bilatzeko.
**es** finta de desplazamiento combinada

**lekualdatze-iskin misto**
Ik. lekualdatze-iskin konbinatu

349
**lerradura** *(4)*
Sin. lerratze *(4)*
Defentsako talde-ekintza taktikoa: defendatzaile bat, aurkari-aldaketarik egin gabe, taldekide baten bizkarraren atzetik joaten da, eta, hala, gurutzatu egiten dira bi defendatzaileen ibilbideak. Defendatzaileak lerro banatan kokatuta daudenez, euren ibilbideek ez dute bat egiten.
**es** deslizamiento
**fr** glissement

350
**lerradura moduko lekualda-tze** *(4)*
Oinak lurretik altxatu gabe egiten den lekualdaketa; alegia, hankak une oro lurraren gainean bermatuta daude.
**es** desplazamiento en forma de deslizamiento

**lerratze**
Ik. lerradura

351
**lesio** *(4)*
Kolpe edo ukaldi baten ondorioz, eroriko bat dela medio, bat-bateko mugimendu edo bestelako arrazoiren baten ondorioz kirolariak jasaten duen min edo kaltea.
**es** lesión
**fr** lésion
**en** lesion; injury

352
**lurretik birarazi** *(4)*
Baloia lurretik bota, firurika ibilaraziz.
**es** hacer rodar
**fr** faire rouler
**en** revolve

353
**luzapen** *(4)*
Bi denbora-erdiak jokatu ondoren jartzen den joko-denbora gehigarria, bosna minutuko bi zati dituena, eta berdinduta bukatu duten bi talderen arteko irabazlea zein izango den erabakitzeko ematen dena.
**es** prórroga
**fr** prolongation
**en** overtime

354
**markaketa** *(4)*
Sin. markatze *(4)*
Partida jokatu bitartean une oro baloia eta aurkaria non dauden jakitea, eta erasotzaile zuzena nahiz gainerako erasotzaileak kontrolpean edukitzea.
**es** marcaje
**fr** marquage
**en** checking; guarding; check

355
**markatu gabeko espazio** *(4)*
Defentsako bi jokalariren artean geratzen den tartea, bertatik erasotzaileren bat sartzeko edo ate aldera jaurtiketa bat egiteko aprobetxatzen dena.
**es** espacio libre de marcaje
**fr** intervale
**en** lane

**markatze**
Ik. markaketa

356
**mozketa** *(4)*
Sin. mozte *(4)*
Defendatzaile batek erasotzaileak egindako paseari bidea ixtea, hau da, baloia hartu edo beste leku batera bidaltzea, aurkariak bidali nahi zuen lekura iristen ez utziz.
**es** interceptación; corte
**fr** interception
**en** intercepting

**mozte**
Ik. mozketa

**mugituz hartze**
Ik. hartze dinamiko

357
**murgiltze-jaurtiketa** *(4)*
Gorputza aurrerantz botata lortzen den indarra aprobetxatuz egiten den jaurtiketa.
**es** lanzamiento en caída; lanzamiento en plancha
**fr** tir en plongeant; tir en plongeon
**en** dive shot; diving shot

358
**norabide-aldaketa** *(4)*
Lekualdatze batean, ibilbidea batbatean aldatzea.
**es** cambio de dirección
**fr** changement de direction
**en** change of direction

359
**norabide-aldaketa bakun** *(4)*
Ibilbidea behin aldatzen duen norabide-aldaketa.
**es** cambio de dirección simple

360
**norabide-aldaketa bikoitz** *(4)*
Ibilbidea bitan aldatzen duen norabide-aldaketa.
**es** cambio de dirección doble

361
**noranzko-aldaketa** *(4)*
Jokalariak hartutako bigarren ibilbideak aurrenekoaren aurkako noranzkoa duenean egiten den jokaldia.
**es** cambio de sentido

362
**ohartarazi** *(4)*
Arbitroak jokalari bati, aulkian eserita dagoen ordezko bati edo entrenatzaileari abisua eman, larritasun arineko arauz kontrako jokabidea izan duelako.
**es** advertir
**fr** rappeler
**en** warn

363
**ohartarazpen** *(4)*
Arbitroak jokalari bati, aulkian eserita dagoen ordezko bati edo entrenatzaileari ematen dion abisua, larritasun arineko arauz kontrako jokabidea izan duela jakinarazten diona.
**es** advertencia
**fr** rappel
**en** warning

364
**oin** (4)
**es** pie
**fr** pied
**en** foot

365
**oin aldatuzko jaurtiketa** *(4)*
Hanka bermatuzko jaurtiketa-mota berezia, beso jaurtitzailearen aldeko oina lurrean bermatua dagoela egiten dena.
**es** lanzamiento a pie cambiado

366
**oinarrizko defentsa-jarrera** *(4)*
Defendatzaileak hartzen duen jarrera orekatua, defentsako edozein ekintza egin aurrekoa edo ondorengoa.
**es** posición de base defensiva
**fr** attitude de base du défenseur

367
**oinarrizko eraso-jarrera** *(4)*
Ondorengo esku-hartzeetan ahalik eta eraginkortasunik handiena lortzeko, erasotzaileak hartu behar duen jarrera.
**es** posición de base ofensiva
**fr** attitude de base de l'attaquant

**ondoz ondoko sarrerak**
Ik. jarraikako progresioak

**ordezte**
Ik. aldaketa

368
**orientazio** *(4)*
Jokalari bakoitzak hartzen duen jarrera, jokalekuan dauden bi ateak (aurkariena eraso-lanean eta defendatzaileena defentsa-lanean) kontuan izanda eta oinen aurrealdea norantz bideratua dagoen ikusita zehazten dena.
**es** orientación
**fr** orientation
**en** orientation

369
**pantaila** *(4)*
Bi erasotzailek edo gehiagok beste hainbeste defendatzaileren aurrean jarriz aurrerantz egiten duten blokeoa, baloia duen erasotzaileak aurrera egin eta jaurtiketa erosoa lor dezan gauzatzen dutena.
**es** pantalla
**fr** écran
**en** screen

370
**partida** *(4)*
Bi taldek elkarren aurka egiten duten lehia-saioa.
**es** partido; encuentro
**fr** match; partie
**en** match

371
**partidaren akta** *(4)*
Idazkariak betetzen duen dokumentua. Bertan jasotzen dira bi taldeetako jokalarien izenak, joko-zerrendak, arbitroen eta pertsonal teknikoaren eta laguntzaileen izenak, partidaren eguna, ordua eta lekua, eta partidako gorabehera guztiak (markatutako golak, ezarritako kargu-hartzeak eta egozteak, eta abar).
**es** acta de partido
**fr** feuille de match
**en** score sheet

372
**pasatu** *(4)*
Jokalari batek baloia taldekide bati bidali.
**es** pasar
**fr** passer
**en** pass

373
**pasatu eta joan** *(4)*
Prozedura taktikoa; prozedura honen bidez, baloia duen jokalariak pasea ematen dio bera baino aurrerago dagoen taldekide bati, eta, jarraian, bere defendatzailearengandik desmarkatu ondoren, hark bidalitako baloia jasotzen du.
**es** pase y va
**fr** passe-et-va
**en** give-and-go

374
**pase** *(4)*
Talde bereko jokalarien artean, baloia elkarri bidaltzea.
**es** pase
**fr** passe
**en** pass

375
**pase altu** *(4)*
Baloia buruaren gainetik bidaliz egiten den pasea.
**es** pase alto; pase por encima de la cabeza
**fr** passe haute
**en** overhead pass

376
**pase baxu** *(4)*
Baloia gerria baino beheragotik bidaliz egiten den pasea.
**es** pase bajo
**fr** passe basse
**en** low pass

377
**pase diagonal** *(4)*
Baloia duen jokalariak aurrean nahiz atzean (baina ez, ordea, parean) duen taldekideari egindako pasea.
**es** pase diagonal
**fr** passe diagonale
**en** diagonal pass

378
**pase klasiko** *(4)*
Beso jaurtitzailearen kontrako zangoa aurreratuz egindako pasea; besoa, jarrera horizontalean egoten da, eta besaurrea, berriz, tolestuta, besoarekin angelu zuzenean.
**es** pase clásico
**fr** passe classique
**en** classic pass

379
**pase labur** *(4)*
Gertu-gertutik egindako pasea.
**es** pase corto
**fr** passe courte
**en** short pass

380
**pase luze** *(4)*
Jokalari batek urrun dagoen taldekide bati egindako pasea.
**es** pase largo
**fr** passe longue
**en** long pass

381
**pase ukitudun** *(4)*
Pase-mota bat; eskuko hatzak ez dira baloia moldatu edo egokitzera iristen, ukitu besterik ez baitute egiten ekintza ahalik eta abiadurarik handienarekin egiteko.
**es** pase con toque

382
**pase zuzendu** *(iz.) (4)*
Beso jaurtitzailearen kontrako alderantz egindako pasea; gorputz-enborra beso jaurtitzailearen kontrako aldera tolesten da, eta beso jaurtitzaileak keinua burutik ahalik eta gertuen egiten du.
**es** pase rectificado; pase en rectificado

**pase-asmoan atzera eragite**
Ik. pasearen asmoa kentze

383
**pase-iskin** *(4)*
Jokalari batek doi-doi pase bat egiteko unean egiten duen iskin edo keinua. Iskin-mota honetan, iskin-egilea aurkaria engainatzen saiatzen da, pase-keinu baten bidez, eta, jarraian, engainu hori aprobetxatzeko, pase bat, lekualdatze bat edo jaurtiketa bat egiten du.

**es** finta de pase
**fr** feinte de passe
**en** fake pass; faking pass

384
**pase-lerro** *(4)*
Baloiak airean egingo lukeen ibilbide posible eta ideala, jokalari batek taldekide bati pase bat egin eta baloiak, inolako oztoporik aurkitu ezean, jarraituko lukeena.
**es** línea de pase
**fr** ligne de passe; trajectoire de passe
**en** passing line

385
**pasea doblatze** *(4)*
Baloia duen jokalariak pasatu dionari itzultzea.
**es** doblar el pase
**fr** doubler la passe

386
**pasearen asmoa kentze** *(4)*
Sin. pase-asmoan atzera eragite *(3)*
Baloia duen jokalariari egin ohi zaion markaketa-mota; pasea eman diezaioten saihesten, zailtzen eta/edo atzerarazten saiatzen da haren zuzeneko aurkaria.
**es** disuasión del pase

**penalizazio**
Ik. zigor

**penalti**
Ik. penalti-jaurtiketa

387
**penalti bidezko gol** *(4)*
Penalti baten bidez lortzen den gola.
**es** gol de penalti
**fr** but sur jet de 7 m
**en** penalty shot goal

388
**penalti-jaurtiketa** *(4)*
Sin. penalti *(4)*
Defendatzen ari den taldeak jaso dezakeen zigor teknikoa. Penalti-jaurtitzaileak, 7 m-ko marratik, aurrean atezaina beste inor ez dagoela, atera jaurtitzen du baloia.
**es** lanzamiento desde el punto de penalti; penalti
**fr** jet de 7 m
**en** 7 m penalty throw; penalty throw

**piririka hartze**
Ik. hartze errodatu

**porrot**
Ik. galtze

389
**posizioa irabazi** *(4)*
Jokalari erasotzaileak, bere aurkariaren markaketari ihes egin eta baloia errazago hartzeko, espazio edo eremu eraginkorra hartu.
**es** ganar la posición
**fr** gagner la position
**en** win the position

390
**postu** *(4)*
Jokalari batek, une bakoitzean aplikatzen den joko-sistemaren arabera, jokalekuan hartzen duen kokalekua.
**es** puesto específico
**fr** poste
**en** position

391
**postu-truke** *(4)*
Bi jokalarik edo gehiagok, euren kokalekuak edo postuak elkarrekin trukatzea.
**es** cambio de puesto específico; permuta
**fr** permutation
**en** change of position

392
**presio-defentsa** *(4)*
Sin. pressing *(4)*
Erasotzaile-kopuru jakin bat beste jokalari-kopuru berdinarekin zorrotz markaraziz antolatzen den defentsako joko-sistema.
**es** defensa en presión; pressing
**fr** pressing
**en** pressing

**pressing**
Ik. presio-defentsa

**progresio**
Ik. aurreratze

**pronazio-pase**
Ik. errebes-pase

**punpa**
Ik. bote

**punpatu**
Ik. bote egin

393
**sake** *(4)*
Pase edo jaurtiketa bidez baloia jokoan jartzea.
**es** saque
**fr** engagement; remise en jeu
**en** throw-in

394
**sakea egin** *(4)*
Sin. baloia atera *(4)*
Pase edo jaurtiketa bidez baloia jokoan jarri.
**es** sacar
**fr** engager; mettre en jeu
**en** put in play

**salto egin**
Ik. jauzi egin

**sartu**
Ik. barneratu

**sartze**
Ik. barneratze

395
**sorbalda gaineko pase** *(4)*
Baloia sorbaldaren gainetik botaz egindako pasea.
**es** pase por encima del hombro; pase sobre el hombro
**fr** passe par dessus l'épaule

396
**taktika** *(4)*
Talde batek, aurkariari irabazteko edo haren jokoari eusteko, jokalekuan erabiltzen duen estrategien eta aurrez prestatutako jokaldien multzoa.
**es** táctica
**fr** tactique
**en** tactics

397
**talde-kontraeraso** *(4)*
Taldeko jokalari guztiek elkar hartuz egiten duten kontraerasoa.
**es** contraataque colectivo

**talde-prozedura taktikoak**
Ik. taldeko taktika-baliabideak

398
**talde-taktika** *(4)*
Erasoko nahiz defentsako helburuak lortzeko, jokoaren une bakoitzean prozedura egokienak aukeratzea eta erabiltzea, prozedurok bi jokalariren edo gehiagoren artean koordinatuz.
**es** táctica colectiva
**fr** tactique collective

399
**taldearen time out** *(4)*
Partidaren denbora-erdi bakoitzean talde bakoitzak eskatzeko aukera duen minutu bateko joko-etenaldia.
**es** time out de equipo

400
**taldeko taktika-baliabideak** *(4)*
Sin. talde-prozedura taktikoak *(3)*
**es** medios tácticos colectivos

401
**teknika** *(4)*
Erasoan zein defentsan, bakarkako ekintza zehatz bat burutzeko erabiltzen diren keinu edo mugimendu ezberdinak menderatzea.
**es** técnica
**fr** technique
**en** technic; technique

**time out**
Ik. joko-etenaldi

**time out adierazi**
Ik. jokoa gelditu

402
**transformazio** *(4)*
Jokalari batek egiten duen lekualdaketa espezifikoa, nahitaez joko-sistema aldatzera behartzen duena.
**es** transformación
**fr** adaptation

403
**trantsizio** *(4)*
**es** transición
**fr** transition
**en** transition

404
**trukatuzko eraso** *(4)*
Sin. zirkulazio-eraso *(3)*
Jokalariei, txandan-txandan, beren lekuak aldaraziz antolatzen den erasoa.
**es** ataque con permutas; ataque en circulación
**fr** attaque avec permutations
**en** attack with interchanging positions

405
**txartel gorri** *(4)*
Kolore gorriko txartela, arbitroak deskalifikazio batekin zigortu behar duela adierazteko ateratzen duena.
**es** tarjeta roja
**fr** carton rouge
**en** red card

406
**txartel hori** *(4)*
Kolore horiko txartela, arbitroak kargu-hartze batekin zigortu behar duela adierazteko ateratzen duena.
**es** tarjeta amarilla
**fr** carton jaune
**en** yellow card

407
**txilibitu-hots** *(4)*
Arbitroak zerbait adierazi nahi duenean, txilibituarekin egiten duen soinu edo hotsa.
**es** pitido
**fr** coup de sifflet
**en** whistle

408
**txilibitua jo** (4)
**es** pitar
**fr** siffler
**en** whistle

409
**urratsak** *(4)*
Jokalari batek, baloiarekin boterik egin gabe, hiru urrats baino gehiago emateagatik egiten duen falta.
**es** pasos
**fr** marcher
**en** walking; walking violation

**urruneko angelura jaurtitze**
Ik. angelu luzera jaurtitze

**urruneko jaurtiketa**
Ik. urrutiko jaurtiketa

410
**urruntze** *(4)*
Sin. aldaratze *(4)*
Aurkariak erasoan jaurtitako baloia atezainak atearen ingurutik aldentzea, edozein gorputz-atalekin joz.
**es** despeje
**fr** dégagement; renvoi
**en** clear; goal throw

411
**urrutiko jaurtiketa** *(4)*
Sin. urruneko jaurtiketa *(4)*
Urrutitik, hau da, oso atzetik jaurtitzea; erasoko lehen lerroko jokalariek egindako jaurtiketak izaten dira normalean.
**es** lanzamiento a distancia
**fr** lancer de loin
**en** long throw

**urrutiko markaketa**
Ik. begiz markatze

**zangarte**
Ik. zangotraba

412
**zangotraba** *(4)*
Sin. zangarte *(3)*
Falta-mota bat, jokalari batek aurkari bati hanka tartean hanka bat trabatu eta lurrera bota nahi izateagatik egiten dena.
**es** zancadilla
**fr** croc-en-jambe
**en** trip

413
**zazpiko eskubaloi** *(4)*
Zazpi jokalariz osatutako bi talderen artean jokatzen den eskubaloi-mota.
**es** balonmano a siete
**fr** handball à sept
**en** indoor field-handball

414
**zerrendan sartu** *(4)*
Partida jakin batean jokatuko duten jokalarien zerrenda egin.
**es** alinear
**fr** aligner
**en** line up

415
**zigor** *(4)*
Sin. penalizazio *(3)*
Falta bat edo arau-hauste bat egin duen taldeari ezartzen zaion zehapena.
**es** sanción
**fr** pénalisation; sanction
**en** penalization; sanction

416
**zigor diziplinario** *(4)*
Jokalarien portaerarekin erlazionatutako faltak zigortzeko jartzen diren eta partidaren aktan jasotzen diren zigorretako bakoitza.
**es** sanción disciplinaria
**fr** sanction disciplinaire
**en** disciplinary sanction

417
**zigor progresibo** *(4)*
Arau-haustea dakarren ekintza batik bat edota soilik aurkariari -eta ez baloiari- begira bideratua dagoenean, era progresiboan ezartzen den zigorretako bakoitza. Horrelako falta bat ez da jaurtiketa librearekin edota 7 m-ko jaurtiketarekin bakarrik zigortuko, falta normalean baloiaren bila gertatzen den borroka baino haratago doalako.
**es** sanción progresiva
**fr** sanction progressive
**en** progressive sanction

418
**zigor tekniko** *(4)*
Jokoaren alderdi teknikoarekin erlazionatutako faltak (erasoko falta, urratsak, bi ukituko falta, etab.) zigortzeko jartzen den zigorretako bakoitza.
**es** sanción técnica
**fr** sanction technique
**en** technical sanction

419
**zigortu** *(4)*
Arbitroak araua hautsi duen bati zigor bat ezarri.
**es** sancionar
**fr** sanctionner
**en** penalize; sanction

**zirkulazio-eraso**
Ik. trukatuzko eraso

**zona-defentsa**
Ik. zonakako defentsa

420
**zonakako defentsa** *(4)*
Sin. zona-defentsa *(4)*
Defendatzaileari, aurkaria edozein aldetara mugitzen dela ere, beti izendatu zaion lekua gordetzeko aginduz, hau da, zona markatuz antolatzen den defentsako joko-sistema.
**es** defensa en zona; defensa zonal
**fr** défense de zone
**en** zone defence

421
**zozketa** *(4)*
Partida zein taldek hasi edo jokalekuaren zein aldetan hasi erabakitzeko, txanpona botatzea; arbitroak botatzen du bi taldeetako kapitainen aurrean, partida edo luzapena hasi aurretik.
**es** sorteo
**fr** tirage au sort
**en** toss

422
**zuzeneko jaurtiketa** *(4)*
Edozein jaurtiketa libre egin edota edozein sake (erdikoa, albokoa nahiz atekoa) ateratzeko unean zuzenean atera egiten den jaurtiketa.
**es** lanzamiento directo
**fr** tir directe
**en** direct shot

423
**zuzeneko pase** *(4)*
Baloiak batere boterik eman gabe zuzenean hartu behar duen jokalariarengana iristen den pasea.
**es** pase directo
**fr** passe directe
**en** direct pass

# 5. ORGANIZAZIOA

424
**ABF liga** *(4)*
Espainiako Emakumezkoen Eskubaloiko Kluben elkarteak (ABFk) antolatzen duen liga-txapelketa, mailarik oneneko hamalau talde biltzen dituena.
**es** Liga ABF

425
**antidopin-kontrol** *(4)*
Sin. dopin-kontrol *(4)*
Kirolariei egiten zaien analisi medikoa, debekatutako farmako edo substantzia estimulatzailerik erabili ote duten detektatzeko egiten dena.
**es** control antidoping
**fr** contrôle antidopage
**en** dope test; doping test

426
**ASOBAL Liga** (4)
**es** Liga ASOBAL

**bertako talde**
Ik. etxeko talde

**dopin-kontrol**
Ik. antidopin-kontrol

427
**EHF Kopa** *(4)*
Europako Eskubaloi Federazioak (European Handball Federation du jatorrizko izena), 1993. urtetik hasita, urtero antolatzen duen txapelketa.
**es** Copa EHF
**fr** Coupe EHF
**en** EHF Cup

428
**EHF kopa-txapeldunen kopa** *(4)*
Sin. Errekopa *(3)*
Aurreko denboraldian nazio bakoitzeko kopa-txapelketan irabazle atera diren taldeek, beren artean eta hainbat kanporaketa eginez, jokatzen duten txapelketa edo kopa-lehiaketa.
**es** Recopa de Europa de Balonmano; Copa de Campeones de Copa
**fr** Coupe d'Europe des vainqueurs de coupe
**en** EHF Cup Winners' Cup

429
**EHFko Txapeldunen Liga** *(4)*
Aurreko denboraldian nazio bakoitzeko liga-txapelketan irabazle atera diren taldeek egiten duten lehiaketa; mota bereko beste bi txapelketek baino sona handiagoa du.
**es** Liga de Campeones de la EHF
**fr** Ligue des champions EHF
**en** EHF Champions League

430
**Errege-kopa** *(4)*
Sin. Erregearen kopa *(4)*
**es** copa del Rey

**Erregearen kopa**
Ik. Errege-kopa

**Errekopa**
Ik. EHF kopa-txapeldunen kopa

431
**etxeko talde** *(4)*
Sin. bertako talde *(3)*
**es** equipo local; equipo de casa
**fr** équipe locale
**en** home team

432
**final-laurden** *(4)*
Txapelketa bateko fase bat; fase horretan zortzi talde lehiatzen dira elkarrekin binaka, finalerdietara zein pasatuko diren erabakitzeko.
**es** cuartos de final
**fr** quart de finale
**en** quarter-final; quarter finals

433
**finalaurreko** *(4)*
Sin. finalerdi *(4)*
Proba baten azken-aurreko fasea, finalean zein talde sartuko diren erabakitzeko balio duena.
**es** semifinal
**fr** demi-finale
**en** semifinal; semi

**finalerdi**
Ik. finalaurreko

434
**hondartzako eskubaloi** *(4)*
Eskubaloiaren modalitatea, arautegia hondartzan aritzeko moduan egokitua edo moldatua duena.
**es** balonmano playa
**fr** beach handball
**en** beach handball

**IHF**
Ik. Nazioarteko Eskubaloi Federazioa

435
**kanpoko talde** *(4)*
Sin. talde bisitari *(4)*
**es** equipo visitante
**fr** équipe visiteuse
**en** away team; visiting team

436
**kanporaketa** *(4)*
Galdu duten taldeak lehiaketatik baztertuz eta, azkenean, irabazi dutenen arteko lehiara iritsiz egiten den txapelketa-sistema.
**es** eliminatoria
**fr** éliminatoire
**en** elimination tournament; knockout competition

437
**lehiaketa** *(4)*
Hainbat talderen arteko norgehiagoka, partida-sistema baten arabera antolatua.
**es** competición
**fr** compétition
**en** competition

438
**liga** *(4)*
Izena emandako kategoria bereko talde guztiak elkarren artean jokatuz egiten den lehiaketa.
**es** liga
**fr** ligue
**en** ligue

439
**Nazioarteko Eskubaloi Federazioa** *(4)*
Sin. IHF *(4)*
Eskubaloiko federazio nazional guztiak biltzen dituen nazioarteko erakundea; kirol hori arautu eta nazioarteko txapelketak antolatzen ditu.
**es** Federación Internacional de Balonmano; IHF
**fr** Fédération Internationale de Handball; FIH
**en** International Handball Federation; IHF

440
**sailkapen** *(4)*
Lehian parte hartzen duten taldeen zerrenda sailkatua, lortutako emaitzen arabera antolatua.
**es** clasificación
**fr** classement
**en** classification

441

**Superkopa** *(4)*
Espainiako Eskubaloi Federazioak sortutako txapelketa; jokaleku neutral bat aukeratu eta aurreko denboraldiko ASOBAL Ligako txapeldunak Errege-kopako txapeldunaren aurka jokatzen du.
**es** Supercopa
**fr** Supercoupe

**talde bisitari**
Ik. kanpoko talde

# 6. OROKORRA

442
**amateur** *(4)*
Profesionalak ez diren kirolarien kirol-kategoria.
**es** amateur; aficionado
**fr** amateur
**en** amateur

443
**benjaminak** *(4)*
Kirol-federazioetako adin-kategoria, ikasturte berria hastera doan urtean 8 eta 9 urte egin behar dituzten neska-mutikoak hartzen dituena.
**es** benjamines
**fr** benjamin

444
**gazteak** *(4)*
Kirol-federazioetako adin-kategoria, ikasturte berria hastera doan urtean 16 eta 17 urte egin behar dituzten neska-mutikoak hartzen dituena.
**es** juveniles
**fr** junior
**en** junior

445
**haurrak** *(4)*
Kirol-federazioetako adin-kategoria, ikasturte berria hastera doan urtean 12 eta 13 urte egin behar dituzten neska-mutikoak hartzen dituena.
**es** infantiles
**fr** minime

446
**kadeteak** *(4)*
Kirol-federazioetako adin-kategoria, ikasturte berria hastera doan urtean 14 eta 15 urte egin behar dituzten neska-mutikoak hartzen dituena.
**es** cadetes
**fr** cadet

447
**kategoria** *(4)*
Sin. maila *(4)*
Jokalari-taldeak sailkatzeko erabiltzen den ordena hierarkizatua, adinaren arabera ezartzen dena.
**es** categoría
**fr** catégorie
**en** class

448
**kimuak** *(4)*
Kirol-federazioetako adin-kategoria, ikasturte berria hastera doan urtean 10 eta 11 urte egin behar dituzten neska-mutikoak hartzen dituena.
**es** alevines
**fr** poussin

**maila**
Ik. kategoria

449
**senior** *(4)*
Kirol-federazioetako adin-kategoria, ikasturte berria hastera doan urtean 18 urte edo gehiago egin behar dituzten kirolariak hartzen dituena.
**es** senior
**fr** senior
**en** senior

450
**talde** *(4)*
Klub batek edo kirol-elkarte batek bere alde jokatzeko dituen jokalari guztien multzoa.
**es** equipo
**fr** équipe
**en** team

# EUSKARAZKO AURKIBIDEA

2-4 eraso, 86
2-4 eraso-sistema, 86
3-2-1 defentsa-sistema, 87
3-3 defentsa-sistema, 88
3-3 eraso, 89
3-3 eraso-sistema, 89
4 m-ko marra, 1
4-2 defentsa-sistema, 90
4-2 defentsa-sistema misto, 91
5-1 defentsa-sistema, 92
5-1 defentsa-sistema misto, 93
6 m-ko eremu, 8
6 m-ko marra, 9
6 m-ko marratik jaurtitze, 94
6-0 defentsa-sistema, 95
7 m-ko marra, 26
9 m-ko marra, 19
9 m-ko marratik jaurtitze, 96

## A

abantaila-lege, 97
abantaila-legea aplikatu, 98
ABF liga, 424
adierazi, 99
agresio, 100
alboko blokeo, 101
alboko defendatzaile, 31
alboko erasotzaile, 32
alboko hartze, 102
alboko marra, 2
alboko pase, 103
alboko sake, 104
alboranzko lekualdatze, 105
alboz kanpo, 106
aldagela, 3
aldakako jaurtiketa, 107
aldakako pase, 108
aldakaren pareko pase, 108
aldaketa, 109
aldaketak egiteko eremu, 4
aldaratze, 410
alde ahul, 110
alde indartsu, 111
aldibereko talka, 112
amaierako seinale automatiko, 113
amateur, 442
angelu labur, 5
angelu laburrera jaurtitze, 114
angelu luze, 6
angelu luzera jaurtitze, 115
antidopin-kontrol, 425
arau-hauste, 116
arauaren aurkako aldaketa, 117
arauz kontrako aldaketa, 117
arauzko denbora, 323
arauzko distantzia, 118
arbitraje, 119
arbitratu, 120
arbitro, 33
arbitro-talde, 34
arbitroaren sake, 121
arbitroen erabaki bateratu, 122
arbitroen seinale, 123
armatu, 124
ASOBAL Liga, 426
ate, 7
ate-eremu, 8
ate-eremua zanpatze, 125
ate-eremuaren inbasio, 125
ate-eremuko marra, 9
ate-eremutik irten, 126
ate-zutoin, 10
atea babestu, 127
atea estali, 127
ateko arbitro, 35
ateko marra, 11
ateko sake, 128
atera jaurtitze, 297

atez kanpoko marra, 12
atezain, 36
atezain-eremu, 8
atseden, 129
atsedenaldi, 129
atzeko blokeo diagonal, 130
atzeranzko lekualdatze, 132
atzera-pase, 131
atzetik hartze, 133
aulki, 13
aurkakoa bultzatu, 136
aurkari, 37
aurkari-aldaketa, 134
aurkaria jo, 137
aurkaria kontrolatze, 135
aurkariari bultza egin, 136
aurkariari kolpe eman, 137
aurreko blokeo diagonal, 138
aurreko blokeo frontal, 139
aurrera-pase, 140
aurreranzko lekualdatze, 141
aurreratze, 142
aurrez aurreko lekualdatze-iskin, 143
aurrez hartze, 144

# B

babes-maskor, 76
baliabide-jaurtiketak, 145
baloi, 14
baloi-zirkulazio, 146
baloia atera, 394
baloia aukeratze, 147
baloia babestu, 148
baloia eduki, 149
baloia galdu, 150
baloia harrotu, 156
baloia hartu, 151
baloia jo, 152
baloia jokatu, 153
baloia kendu, 154
baloia kontrolatu, 155
baloia loratu, 156
baloia urrundu, 157
baloiaren jabe izan, 149
baloiaren kontrol, 158
baloiari bidea moztu, 159
baloira moldatze, 160
banakako defentsa-sistema, 161
banakako kontraeraso, 162
banakako taktika, 163
barneratu, 164
barneratze, 165
barrabil-babes, 76
baselina, 166
bat baten kontra, 167
begiz markatze, 168
behetik hartze, 169
behetik jaurtitze, 299
belaun-babes, 77
belauneko, 77
benjaminak, 443
berdinketa, 170
berdinketa hauste, 171
berotze, 172
bertako talde, 431
beso jaurtitzaile, 173
besoa armatze, 174
besoko, 78
bi boteko falta, 190
bi eskuko pase, 175
bi jokalariko pantaila, 177
bi ukituko falta, 178
bigarren denbora-erdi, 176
bigarren entrenatzaile, 42
bigarren zati, 176
biko pantaila, 177
bikoitz, 178
bizkar-jaurtiketa, 179

bizkar-pase, 180
bizkarreko lekualdatze-iskin, 181
blokatzaile, 38
blokatze, 182
blokeatu, 183
blokeatzaile, 39
blokeatze, 185
blokeko geldiketa, 184
blokeo, 185
blokeo dinamiko, 186
blokeo estatiko, 187
bota, 296
bote, 188
bote bertikal, 189
bote bidezko jaurtiketa, 197
bote bidezko pase, 198
bote bikoitz, 190
bote egin, 191
bote handi, 192
bote jarraitu, 193
bote txiki, 194
bote unitario, 195
bote zeihar, 196
bote-jaurtiketa, 197
bote-pase, 198
bular azpitik hartze, 169
bularraren pareko hartze, 199
bularreko pase, 200
bultzatuz egindako pase, 201
bultzatuzko pase, 201
buru gainetik jaurtitze, 298
buruaren pareko hartze, 262
buruz buru, 167
buruz buruko defentsa-sistema, 161

# D

defendatu, 202
defendatzaile, 40
defendatzaile aurreratu, 55
defentsa, 203
defentsa inguratu, 204
defentsa jugoslaviar, 87
defentsa misto, 205
defentsa-balantze, 213
defentsa-eraso trantsizio, 206
defentsa-joko, 207
defentsa-lerro, 208
defentsa-triangelu, 209
defentsako bigarren lerro, 210
defentsako bote, 194
defentsako hirugarren lerro, 211
defentsako lehen lerro, 212
defentsara biltze, 213
deialdi, 214
dejada, 215
dejadako pase, 216
denboraldi, 217
denboraldi-aurre, 218
derbi, 219
deskalifikatu, 220
deskalifikazio, 221
desmarkatu, 222
desmarkatze-iskin, 223
desorekatu, 224
doblatze, 225
dopin, 226
dopin-kontrol, 425
driblatu, 227
driblin, 228

# E

EHF Kopa, 427
EHF kopa-txapeldunen kopa, 428
EHFko Txapeldunen Liga, 429
ekipamendu, 81
elastiko, 79
elkarrekiko erresistentzia, 229
emaitza, 230
entrenamendu, 231
entrenatzaile, 41
entrenatzaile laguntzaile, 42
epaile, 33
eraso, 232, 233
eraso posizional, 234
eraso-bote, 192
eraso-defentsa aldaketak, 235
eraso-defentsa trantsizio, 236
eraso-joko, 237
eraso-lerro, 238
erasoaldi, 233
erasoko bigarren lerro, 239
erasoko falta, 240
erasoko lehen lerro, 241
erasotzaile, 43
erdiko, 46
erdiko arbitro, 44
erdiko defendatzaile, 45
erdiko jokalari, 46
erdiko jokalari aurreratu, 47
erdiko marra, 15
erdiko sake, 242
erdiko sakea egin, 243
erditik atera, 243
erorizko jaurtiketa, 244
errebes-pase, 245
errebeskako jaurtiketa, 246
errebote, 247
erreflexuzko geldiketa, 248
Errege-kopa, 430
